

hiruka



155. zenbakia
2020ko urtarrila

ÁLVARO ALVIN BAYONA Gorpildun aulkian dagoen muturreko kirolaria

«Hau ez da oztopo
bat, erronka berri
bat baizik»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Asier Barruetaña, Eunata Muruaga, Izei Azkue, Inaki Libano, Eduardo San Andrés, Kerman Santiago

Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.


Ustekabeko lurreratze hur



Aurkibidea

- 4 1957: hegazkin bat Ereagan lurreratu zenekoa
- 10 Albiste izan da
- 14 Hizkuntzaren zalantzategia
- 15 Gatz-ozpinetan
- 16 Zientzia etxeko atarian
- 17 Historiaren ganbara
- 18 Hirudika: ontzi zaharren konponketa-lanak
- 24 Álvaro Bayona, kirolaria: «Bizitza jarrera bat da»
- 28 Leioako Kurkudi mendiko proiektua, ezbaian
- 30 Musikhariak: Labana
- 39 Natxo Basañez, CrossFit-aren inguruan berbetan
- 40 Inhar Ugarte pilotariagaz berbetan
- 44 Hirukira Olgetan

28




Leioako Kurkudiko in ez ukitzeko eskatu du

a



«Bizitza etengabeko erronka bat da»



24




gurua
te

39



Natxo Basañez: «CrossFit-ean
norberaren gaitasunetara
egokitzea da garrantzitsuen»

40



Inhar Ugarte,
Iparraldeko
trinketeko irabazlea

Ereagan hegazkin bat lurrerratu zenekoa



Algortako Ereagako hondartza ustekabeko aireportu bihurtu zen 1957ko maiatzaren 17an, alboko argazkiak ondo erakusten duenez. Sondikatik zetorren Auster-Autocrat modeloko hegazkin txiki batek, behartuta, bertako harean lur hartu zuen, hegaldian matxuratu ostean. Zorionez, abioian zihoazen hiru pertsonak onik atera ziren, baita momentu hartan hondartzan zeudenak ere. Modesto Pérdigo du izena egun hartako pilotuak, gutxi falta zaio 91 urte betetzeko, eta HIRUKAgaz egon da gertakari hura eta bere bizitzako beste pasadizo esanguratsu batzuk gogoratzeko.

TESTUAK: UNAI BREA ARGAZKIAK: HODEI TORRES · MODESTO PÉRDIGOK UTZIAK ►

anbidez ingeniaria izan arren, Modesto Pérdigoren bizitzan garrantzi handia izan du abiazioak. Begoñan jaio zen 1929an, Sondikan aireportu bat eraikitzeke kudeaketak hasi eta urte t' erdira, gutxi gorabehera, eta hain zuzen Sondikara joan zen beraren familia, Modesto ume txikia zela. Herri horretan hazi zen, aireportutik hurbil, eta arin piztu zitzaion hegaldiekiko grina.

Pérdigo nahiko gazte hasi zen hegazkin txikiak pilotatzen. Ingeniaritza-ikasketak egiten zituen garaian akrobaziak egiten ibiltzen zen. Soldadutza abiazioan egiteko ere eskatu zuen, baina ukatu egin zioten («familia abertzalekoa nintzelako», dio berak). Hala ere, urte askoan eutsi zion zaletasunari; Ereagan lurreratzeari egin zuenerako, artean gaztea zen arren, bazuen eskarmen-turik pilotatze-kontuetan. Azaldu duenez, egun hartan aireportuko arduradunek bertara joateko eskatu zioten, hegazkin-mota berri baten probazko hegaldi bat egiteko. Hura amaitu ostean, abioitik hurbil, Sondikako nesken eskolako irakasle bigaz topo egin zuen: Teresa Fernandez eta Teresa Iturriaga. Sekula hegazkinean ibili barik zeuden emakume biak, eta hegaldi batean eroateko eskatu zioten Pérdigori. «Oraintxe, gura baduzue», erantzun zien pilotuak. Bete beharreko dokumentazioa bete eta hegaldirako aukeratutako abioia egoera onean zegoela ziurtatzen hasi zen Pérdigo, aireportuko mekanikariagaz batera, baina Teresa Iturriagak, bere jesarlekura igotzean, behar ez zuen lekuan zapaldu zuen, eta takoiagaz kanpoko olana urratu zuen.

MOTORRA LEHERTUTA. Ezbeharra zela eta hegazkinez aldatu behar izan zuten. Azkenean, lur hartu berri zegoen Auster Autocrat bat hartu zuten Fernandez eta Iturriagaren aire-bataioa egiteko. Algorta eta Neguri aldetik zetorren, hain zuzen ere. «Mekanikaria kexu zen motorra oraindino bero zegoela eta zaila izango zela hegazkina martxan ipintzea», gogoratu du Modesto Pérdigok. Abiatu ziren hala ere, eta airean oso denbora gutxi zeramatela, «Erandio eta Leioaren arteko mugan gutxi gorabehera», pilotua konturatu egin zen arazo larri bat zutela, takometroa bortizki oszilatzen hasi baitzen.

«Atoan ohartu nintzen abioiak matxura larria zuela; motorraren martxa moteldu nuen eta buelta erdia ematen ahalegindu nintzen, aireportura itzuli eta han, zelan edo hala lur hartzeko, baina biraketa egiten hasi orduko motorra lehertu egin zen». Momentu hartan hegazkina amatatu zuen Pérdigok, helizea guztiz gelditu zen, eta La Avanzada errepedearen gainetik Getxorako noranzkoan jarraitu zuen, lehenbailehen eta ahalik eta ondoen lurreratzeko leku baten bila. «Ordurako ez neukan denborarik, ez eta altuera nahikorik ere, Sondikara bueltatzeko», azaldu du pilotuak, «gainera arazoak sortuko genizkien han zebiltzan beste hegazkinei».

La Avanzadako bidean lur hartzea izan zen Pérdigori bururatu zitzaion lehenengo aukera, baina auto batzuk zebiltzan eta arriskutsua izan zatekeen. «Momentu hartan bidaiari biak konturatu ziren arazoren bat genuela», gogoratu du, «eta erabaki nuen zer gertatzen ari zen esatea, hau da, motorrik gabe genbiltzala hegan eta behar-



Lurreratzearen ostean egindako argazkia. Aurreko lerroan, pikotxean, Modesto Pérdigo; zutunik daudenen artean, ezkerretik hasita bigarrena da Teresa Fernandez, eta eskumakoa Teresa Iturriaga.

tutako lurreratzea egin behar genuela». Modesto Pérdigoren esanetan, hura entzundakoan Teresa Fernandezek izan zuen erreakzioa egoera zaildu zuen: «Nire alboan zihoan, aurreko aldean, eta indar handiz besarkatu ninduen; ezin nuen hegazkina erabili!». Ahal bezala, beso bat askatu eta Fernandezi aurpegian kolpe bat jo ziola dio Pérdigok: «Zur eta lur geratu zen, eta momentu hura aprobeztatu nuen bie azaltzeko zelan jokatu behar zuten: esku-oinak non kokatu esan nien, eta ondo eusteko eta ahalik eta gutxien mugitzeko eskatu». Hegazkin hark gidari birentzako aginteak zituela gogoratzen du pilotuak. «Bidaierietako batek komeni ez zen gailua ukituz gero, are zailago bilaka zitezkeen maniabrak».

HONDARTZA BATEN BILA. Oso denbora laburrean (ezinbestean) hainbat aukera aztertu eta baztertu ostean, lurrera jaisteko hondartza bat bilatzea erabaki zuen Modesto Pérdigok. Ereagakoa zegoen hurbilen, eta harantz eroan zuen Auster Autocrat txikia. Garai hartan, hondartzaren ezkerreko aldean, Arriluzeko kaia eraikitzeko erabilitako garabi handia zegoen oraindino. «Hura saihestu behar izan nuen», dio pilotuak, «motorrik gabe nahiko arriskutsua den maniobra bat eginez, eta berehala hondartzan gelditzeko leku egokiena aukeratu».

Maiatz erdiko egun hartan Ereaga ez zegoen jendez gainezka, baina huts-hutsik ere ez. «Nik ez neukan esperientziarik harearen gainean lurreratzeko, eta horretarako trebakuntzarik ere ez nuen inoiz jaso; iruditu zitzaidan harea bustita dagoen eremua izan zitekeela egokiena, baina pertsona batzuk zebiltzan han, eta beste leku batzuetan ere jendea zegoen». Pérdigoren esanetan, bitxia da hondartzan zeudenetatik inor ez zela konturatu motor barik zebiltzala hegaka, «eta honenbestez bertan lur hartzea beste erremediorik ez genuela». Hala, inor

Mekanikariari errieta

«Istripuaren erantzukizuna nirea ez zela ebatzitakoan», dio Modesto Pérdigok, «apurka-apurka “ikertzen” hasi nintzen zer gertatu zen, hura ez zelako normala izan. Azkenik, Sondikako aireportuko mekanikarien buruak esan zidan motorraren atal bat aspaldi zegoela matxuratuta, baina behin hura martxan ipinita funtzionatzeko segitzen zuela. Nik erantzun nion abiazioan zalantza eragiten duten piezak aldatu egin behar direla, eta berak ondo zekiela arau hori. Baliabide gutxi zuela eta ordeko piezak eskatzeaz nekatuta zegoela esan zidan. Hori ez zela aitzakia nahikoa adierazi nion; dena dela ez nuen ezer esan beraren aurka»

ez zen kendu zegoen lekutik, eta horrek behartu zuen Sondikako pilotua hondartzako ingururik okerrera, «gorabeheratsue-na», aukeratzera.

Modesto Pérdigok behar adinako trebezia izan zuen ondorio larririk gabe lurra hartu eta, bistan dena, beraren eta bera-gaz zihoa zen bidaiari biren bizitza salbatzeko. Izan ere, inongo zauririk gabe, onik atera ziren hirurak. Teresa Fernandez eta Teresa Iturriaga hilda daude daborduko, baina bizirik egon ziren bitartean urtero, Gabonetan, Pérdigori deitu zioten eskerak emateko.

LURRERATU OSTEOAK. Pilotu ohiak dioenez, hondartzan zegoen jendeak berehala inguratu zituen hegazkinetik jaitsi berriak. «Norbaitek esan zuen pilotua Pepón Escauriaza izeneko aberaskume bat zela», dio Pérdigok, «Neguri ingurukoa edo, apeta hutsagatik erabaki zuena hondartzan lur hartzea. Beste batek esan zuen: “Baina nori bururatu zaio hemen lurreratzea? Norbait hil zezakeen!”». Laster hurreratu zitzaizkien Getxoko udaltzain bi ere, gertatutakoaz galdezka.

Pérdigok ez zuen dokumentaziorik aldean une hartan. Horrek ez zion udaltzainak azarorik sortu, baina bai ondoren agertutako guardia zibilakaz. Aireportura telefonoz deitzeko inguruko jatetxeetako batera zihola geldiarazi zuten, baina azkenean haien errieta bat izan zen ondorio guztia berarentzat. «Aireportuko buruagaz berba egitea lortu eta jazotakoa azaldu nionean, ezin zuen sinetsi. “Oraindik orain abiatu zarete eta!”, erantzun zidan». Hegaldiak hamaika minutuko iraupena izan zuen Sondikatik Ereagara.

Gerora ikusi zuten hegazkinaren motorra guztiz hondatuta zegoela, lehertuta. Zatitxo batzuk airera jaurti zituen ezta-dak, eta besteren bat Modesto Pérdigok berak gorde du gaur



Goiko argazkian, Modesto Pérdigo hegazkin batean. Behean, istripuan hondatutako pistoia.



Puskatutako pistoiari eusten ageri da hemen Pérdigo.

egun arte, orrialde honetako goiko argazkian ikus dezakezuen puskatutako pistoia esaterako. «Hegazkinari dagokionez, motor berria ipini zioten eta Kataluniako zale batek erosi zuen».

Jazotakoa argitzeko egin zen espedienteak ez zion ondorio txarrik ekarri Pérdigori; ondo jokatu duela ebatzi zuten. Hala ere, kexu da gertakariaren bestelako bertsio bat zabaldu zela. Horri erantzunez, 2001ean xehetasunez betetako idatzi luze batean jaso zuen hemen agertu dugun kontakizuna; izan ere, dokumentu hartatik hartu ditugu pilotuak berak aurrez aurre egindako elkarrizketan azaldu ez dizkigun zenbait pasarte.

ESTATUBATUAR GERRA-ABIOIA ERANDION. Badago Modesto Pérdigoren bizitzan esanguratsua izandako behartutako beste lurreratze bat, eta hori ere gurean jazo zen, Erandiogoikoan hain justu, baina orduko hartan bera ez zen protagonista izan, lekukoa baizik. Ereagakoa baino askoz lehenago gertatu zen, 1944an, Pérdigok 15 urte zituela, eta haren berri ederto eman zuen Txorierriko *Aikor!* aldizkariak, zazpi urteko aldeagaz argitaratutako erreportaje bitan. Lehenengoa 2012ko ekainean (aldizkariaren 116. zenbakian), eta bigarrena orain dela askoz gutxiago, iazko urrian (196. zenbakian). Biak ala biak erraz topatuko dituzu *Aikor!*-en webgunean.

Historia hori Ingalaterran hasi zen, 1944ko ekainaren 25ean. Bigarren Mundu Gerraren azken txanpa hasita zegoen, eta egun gutxi ziren aliatuen milaka soldaduk Frantziako Normandiako Lehorreratzean parte hartu zutela. Testuinguru hartan, *Bachelor's Bride* izeneko AEBetako hegazkin bat Ingalaterratik abiatu zen Okzitaniako Tolosara, alemaniarren aerodromo bat bonbardatzeko asmoz. Baina bidean zeudela, matxura baten erruz, halabeharrezko lurreratzea egin behar izan zuten, non eta Erandiogoikoako ortu batean. Bertara ailegatu

Leihotik begira zegoen umea

Artikulu honetan kontatu dugun gertakaria baino askoz geroago, 2000. urtean, bihotzekoa izan zuen Modesto Pérdigok. Halako batean, bere semea, Koldo, ospitalean zegoen aita artatu zuen kardiologoagaz, haren egoeraz berbetan. «Ez duzu erraz hau beste mundura eroango», esan zuen Koldo Pérdigok, «pentsa, behin hegazkinean zihoala motorrik gabe geratu eta Ereagan lur hartzea lortu zuen, onik». Medikuak zapla erantzun zion: «Hara, bera zen? Ikusi egin nuen eta!». Algortakoa zen kardiologoa, eta umea zela, leihotik ikusi zuen pasatzen Ereagan lur hartzera zihoan matxuratutako Auster Autocrat hura.

ziren lehenengoetakoa izan zen Pérdigo, hegazkina pasatzen leihotik ikusi ostean motoa hartuta.

Bachelor's Bride abioi handia zen, Boeing B-17 modelokoa, eta bederatzi estatubatuar soldadu zihoazen barruan. Batzuek zauriak izan zituzten, eta Pérdigoren aita (Modesto hura ere) izan zen Euskal Herrian egon ziren bitartean artatu zituena, «Sondikako praktikantea zen eta». Izan ere, herriko medikuak, «Pereiro abizena zuen batek», uko egin zion hegazkinean zihoazenei laguntzera. «Gure lagunei bonbak botatzen zietenak ez zituela berak artatuko esan zuen», dio Modesto Pérdigok. Esan gabe doa Pereiro delakoa frankista sutsua zela, eta «gure lagunak», naziak. Beharbada mesedegarria izan zen haren erabakia; Pérdigok gogoratzen du medikuntzaz ez zekiela behar beste, eta Francoren erregimenagaz bat egiteagatik zegoela karguan. *Bachelor's Bride*-ko bederatzi gizonak Loiuko Larrondo auzoko txalet batean egon ziren zauriak sendatu bitartean, pare bat astez. «Ugazaba Santi Alcaide zen, Bilboko *Nueva York* gozo-denda zuena; hark eskaini zuen bere etxea».

Aikor! aldizkariak, ikertzaile frantziar baten lanari esker, lortu zuen *Bachelor's Bride* hegazkinaren pilotuaren familiagaz harremanean jarri eta Euskal Herrira ekartzea. Zehazki, haren alaba txikia, Barb Dow (Farrel Goodrich zen aitaren izena), senarragaz batera bisitari izan zuten Txorierrin joan den urrian, eta horregatik argitaratu zuten gaiaren gaineko bigarren erreportajea. *Aikor!*-en ekimenez, aitak izandako istripuaren lekuko batzuek elkartu ahal izan zen Barb Dow, eta horietan zaharrena Modesto Pérdigo zen. Topaketaren xehetasunak bikain azaldu zituen Jose Angel Mentxaka kazetariak Txorierriko aldizkarian. Horiek ezagutzeko grina baduzu bertako orrialdeetara jotzea gomendatzen dizugu, guri hegaldi hau amaitzeko momentua ailegatu zaigu eta. ◀

Iritzia **Txiri-txiri**

Cony Carranza Castro

UXUNE IRIONDO URBISTAZU Bilgune Feministako kidea



Bizitzari eskertzen diot Cony eta bion bideak gurutzatu izana. Getxoko jabekuntza-eskolan ezagutu nuen, migratuentzako topagune feministak antolatzen eta dinamizatzen zituen. Bat-bateko miresmena sentitu nuen. Hain apal, trebe, gozo, jator, ziur, argi, eder jarduten zuen! Duela hamabost bat urte Salvadorretik etorria, herri-hezkuntza feministan aditua eta aritua, emakumeei gatazka-, zapalkuntza- eta premia-egoerei aurre egiten laguntzen trebatua. Sorterrian hala jardun zuen eta hemen, zailtasun handiekin, aurrera egiteko tarteka zaintza-lanak oraindik ogibide dituen arren, milaka ordu ere eman ditu euskal herri askotan emakumeak, bereziki migratuak, ahaldundu eta duintzeko espazio, mintegi, topagune eta ikastaroak sortzen eta idazten.

Gozamena da jendearekin zelan konektatzen duen sentitzea, gai da talde batean norbanako bakoitzaren beharrez berehala ohartzeko. Artista da denon ahotsak entzun daitezen lortzen, dotorea beti hitz egiteko joera dutenak tarteka isilarazten eta isilik eta oharkabea igaro litezkeinei ahotsa ematen, gaitik urruntzen garenean berriro gaira bideratzen, elkarri errespetuz eta adi entzutearen garrantzia eta plazera erdigunera ekartzen. Askotariko adin, jatorri, ohitura eta bizipenak ditugun emakumeok batu eta, konturatzeko, urruntzen gaituzten aurreiritziak eta hormak eraitsi eta bestelako begirada eta sentipenak pizten dizkigu. Energia eta presentzia bereziko emakumea da, irribarre maitagarrikoa, begi bizi eta pikaroak ditu, alaia da, musika entzun orduko gorputza dantzan jartzen zaien horietakoa. Inolako harrokeriarik gabeko pertsona.

Nire iritziz, Euskal Herria gutariko askok baino hobeto ezagutzen du. Inurri-lana egiten du, sareak ederto ehuntzen ditu, bizipoza barreiatzen du. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez! Maite zaitugu, Cony!

Iritzia **Hirugarren begia**

Jokeretik **Parásitose**

NERE FALAGAN MARTIN Zinemagilea



Zinemara joaten zaretenean, zer film mota ikusten duzue? *Mainstream* zinema? Hollywoodekoa? Hona hemen azkenaldian aretoetan emandako izenburu batzuk: *Joker*, *Ventajas de viajar en tren*, *La trinchera infinita*, *Los ángeles de Charlie*, *Los miserables*, *Mujercitas...* eta *Parásitos*. Ziur nago izen hori behin baino gehiagotan entzun duzuela. *Parasites*, bere jatorrian *Gisaengchung*. Urriaren 25ean estreinatu zen Estatuan Hego Koreako film hori eta oraindik zenbait zinema-aretoetan ikus daiteke. Nola da posible film batek horrenbeste irautea? Kasu honetan erantzuna oso sinplea da: Bong Joon Ho zuzendariak maisulan bat sortu du.

Zinemagilearen filmografiari erreparatuz (*Memories of Murder*, *Mother*, *Snowpiercer...*) ez da harritzekoa azkenengo lanak mundu osoan izandako arrakasta. Spoilerrak saihestuz, istorio oso bestelakoak eta aldi berean, «parasitoak» diren bi familiaren arteko harreman toxikoaren ingurukoa da filma. Komedia beltza, drama eta kritika soziala dira osagai nagusiak. Errusiar *matrioshka* bat bezala, sorpresaz gainezka dago. Lan batek ikusleek barre egitea eta munduko bidegabekeriekin haserretzea lortzen badu, txalotzekoa dela uste dut. Zinemagile gutxiak dakite umore eta kritika *continuum* harian ondo maneiatzen. Damián Szifron argentinarrak *Relatos Salvajes* pelikulan primeran lortu zuen.

«Mundu osoa» aipatu dut lehen. Cannes-eko Zinema Jaialdi ospetsuan Urrezko Palma jaso zuen *Parásitosek*, eta hori berri ona da, merezitako aitortza baita. Horrekin batera, 2019an Oscar sarietan lehenengo aldiz aktore indigena baten presentzia aipatu nahi dut, Yalitza Aparicioarena. Horrek erakusten du egungo erreferenteak ezin direla Hollywooder mugatu, eta badaudela kalitatezko eta balio handiko proiektuak AEBetatik at.

Denetarik ikustea ez dago gaizki, baina ez konformatu *Jokerekin* bakarrik.

Puntua eta kontrapuntua **Behartutako lur-hartzea Ereagan**

Modesto



MAIDER BARAÑANO URIBARRI
Algorta

*Haize korrante eta ekaitzak
hartzen zituen mendeko,
bisitatuaz Aizkorri eta
Arrigunaga tarteko.
Nahiz arazoak hamaika izan,
jarraitzea lortu terko:
ondo lur hartzen jakin behar da
ondo hegan egiteko!*

*Modesto zuen izena, baina
hegan kontuetan ausart;
garai bateko kronika denek
hori dioskue behintzat.
Behin Ereagan egin ei zuen
lurreratze mitiko bat...
Hondartzan bainu eder bat hartu
nahi zuelakoa daukat!*

JOSEBA SANTXO URIARTE
Getxo



Lehen/Orain **Leioa 70eko hamarkada**



Erretratua **Betitxe Saitua Estebanez** Antzerkirako jantzien diseinatzailea

Besteak beste, Madrilen eta Londresen ikasia; goi-mailako jostuntza munduan hamaika proiektutan murgilduta dabil Betitxe Saitua Estebanez (1986) sopoloztarra.

TESTUA: KERNAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Txukuntasuna, originaltasuna eta nortasuna dira arrakasta izateko moda-diseinatzaile batek behar dituen bertuteak, besteak beste. Ezaugarriok artearen bidez gauzatzen dituela diosku Saituak: «Ia hamar urtez Bilboko Arte Ederren Museoan eta Guggenheim Museoan hezitzailea izan naiz. Artea beti dago oinarrian». Arte Ederretan (EHU) eta Artearen Historian (UNED) lizentziatu ostean, atzerriara egin zuen; Madrilen eta Londresen, formakuntza hobetu ez ezik, modari lotutako bere ikuspuntua ere zorrotzu zuen.

Antzerkirako jantzien diseinatzailea dugu sopoloztarra; gaur egun, autonomo dihardu Urdulizko estudioan. Laster argia ikusiko duten hainbat antzezlanen jantziak diseinatu ditu; Maria Goiricelayaren *Ama Kuraia* eta Ramón Barearen *UBU Rey de las*

«Fashion Revolution mugimendua bultzatzea berebizikoa dugu moda munduan jasangarritasuna defendatzeko»

Finanzas, kasu. Gainera, Bilbao Art & Fashion 6. edizioan finalera ailegatu zen; 2.000 diseinatzailek parte hartu zuten bertan. «Modaren industria moda azkarra delakoaren sinonimoa da gaur egun», azaldu digu Saituak. Bere aburuz, lan-prekarietatea erabat kutsakorra da mundu horretan, eta bidegabekeriei aurre egiteko iraultzaren aldekoa da: «Fashion Revolution mugimendua bultzatzea berebizikoa da jasangarritasuna defendatzeko». 100 herrialde baino gehiagotan dihardu mugimenduak 2013tik kanpainak bultzatzen, industria-munduko hornidura-katea gardenagoa egite aldera. «Orain dela hamarkada batzuk ez bezala, gaur egun modaren mundua merke eta asko saltzeko oinarrituta dago», deitoratu du Saituak. ◀



Getxo Sasoi-sasoian José Azqueta nabarmenduta



© GETXOKO UDALA

2019ko kirolari onenaren saria jaso du.

2019ko Getxoko kirolari onenaren saria jaso du José Azqueta bela-estropadalariak. Besteak beste, bosgarren postua eskuratu zuen J80 klaseko Munduko Txapelketan eta hirugarren Espainiako Bela Txapelketan. *Biobizz* ontziko patroiak pozik hartu du saria, baita eskertu ere: «Urte ikusgarria ixteko ustekabea izan da. Bi urtez gogor aritu gara entrenatzen, eta, egia esan, ez genuen espero maila horretan egotea. Beharrezko baldintzak eman dira, eta azkenean lortu dugu goian egotea. Oso harrituta baina oso pozik, onenekin hor egoteagatik». Era berean, 2020. urteko helburuei begira, kirolariak aurreratu duenez, «gauden bezala jarraitzea espero dugu, ahal dugun guztia lantzen eta entrenatzen jarraitzea, eta aurrekoaren antzeko denboraldia egiten jarraitzea. Aurten Espainiako Txapelketa, Espainiako Kopa eta Europakoa egingo ditugu».

Getxo Proba pilotua Patinete berrien balorazioa

Patinete elektrikoak udalerrian lau hilabetez ezartzeko proba pilotuaren ondoren, Getxoko Udalak denbora-tarte horretan jasotako datuak aztertuko ditu Getxo 2030 Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planaren barruan. Etorkizuneko erabilera arautzea eta beharra aztertzea da helburua.

Lehen esperientzia horren bidez, Udalak informazio eta datu gehiago eman ditu alokairuzko ibilgailu-mota horien hiri-mugikortasunari buruzko hausnarketarako; nabarmendu dutenez, herritarren erantzun zibiko orokorra, ibilbideak eta adierazitako lekuetan aparkatzea errespetatuz egin da eta ez da «inolako istripurik egon». Enpresa, bestalde, oso pozik dago Getxoko proba pilotuan lortutako emaitzagaz.

Getxo Fadurako garagardotegi berriaren proiektua

Erabilera soziala eta kirolari lotua

Orain dela lau urte erren eraikina berritzeko parte-hartze bidezko prozesuak etorkizunerako proiektua aurreikusi du daborduko; datozen hilabeteetan hasiko dira hura egokitze lanak.

IKER RINCON MORENO ►

Fadurako garagardotegi zaharreko eraikinak bere alderik sozialena berreskuratuko duela iragarri du Getxoko Udalak. Era berean, gaineratu dutenez, tokiko enpresei eta proiektu berriei ere lekua egingo zaie, betiere ariketa fisikoaren inguruko produktuak edo zerbitzuak garatuko badituzte. 2017an, eraikinaren erabilera eta azpiegitura bera diseinatzeko asmoz, prozesu espezifikoak garatu zen Thinking Fadura programaren barruan, non ekipamendua birgaitzeko aurreproiektua egin zen. Orain, prozesuan parte hartu duten hainbat eragilek proposaturiko ideiakaz egindako aurreproiektua aintzat hartuta, oinarritzeko proiektuaren diseinua egin da; horri jarraituko dio egikaritze-proiektuak eta, azkenik, higiezin birgaituko duen obra-proiektua gauzatuko da, ondoren eremuaren birgaitzeari ekiteko.

Aurreikusitako proiektuan garagardotegiaren alderik sozialena berreskuratuko



Proiektu berriaren infografia. © GETXOKO UDALA

Kirol-taldeek gizarte-zentro madura garatzen ari zen jarduera bermatuko du.

duen eraikin bat altxatzea proiektatuta dago. Hau da, udalerriko kirol-taldeek bilerak eta ospakizunak, hainbat motatako jarduerak, erakusketak eta kirolagaz lotutako erakusketak edo proiektzioak egiteko leku bat, besteak beste. Era berean, esan bezala, kirolari lotutako Getxoko enpresa berriei babesa emango die gune berri horrek. ◀

Getxo Wanted gazteentzako ideia-lehiaketa

Hamar urteotako saridun denak, bilduta

IKER RINCON MORENO ►

Gazteek bultzatutako proiektuei laguntzeko Wanted programaren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo dute urtarrilaren 25ean, zapatuan, Muxikebarriko Arrigunaga aretoan. Edizio bakoitzeko irabazleek prozesuan izandako esperientziak kontatuko dituzte, baita gaur egun zein egoeratan dauden ere. Era berean, ekitaldira bertaratuko diren pertsona denen artean saretze-giroa sortuko dute, euren esperientziak ere kontatzeko.

Azkenengo irabazleak

Kerman Sanjuan, Juan Ignacio Llorente eta Gaizka Urkizo (Gomuta); Jorge eta Alvaro Robledo eta Ander Gallego (Socialdog); eta Maitane Sarralde (Iraun).

Egunari amaiera emateko, gainera, dantza bertikal ikuskizuna eta DJ Koala eta Sound System saioak egingo dira.

Wanted Getxoko Udalak 2009an martxan jarritako programa bat da, finantzaketa, aholkularitza tekniko, orientazio eta abarren faltagatik zailtasunak dituzten 18 eta 30 urte arteko gazteek eurek garatutako proiektuak abian jartzen laguntzeko. Hala, besteak beste, programak laguntza ematen die aukeratutako proiektuei 10.000 eurora arteko finantzaketagaz, baita aholkularitza profesionalak, prestakuntza espezifikoak eta bestelako baliabide teknikoak ere. ◀

Leioa Errepide-kontuak berbabide

La Avanzadan lanak eta tunela zehaztuta

Itsasadarren azpitik igaroko den tunelak badu ibilbidea: Artatzan hasiko da, eta 2028an irekitzea espero dute. Bitartean, La Avanzadako trafikoa arintzeko lanak abiarazi ditu Bizkaiko Foru Aldundiak.

UNAI BREA ▶

La Avanzada errepideko tunelaren eta Artatzako errotondaren arteko bidean hainbat aldaketa egingo ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, edukiera handitzeko eta autoak gaur egun baino arinago ibili ahal izateko biribilgunera hurbildu ahala. Egokitzapen-lanek zazpi hilabete iraungo dute, eta aurrekontua 1,1 milioi eurokoa izango da.

Imanol Pradales Azpiegituratarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak eta Iban Rodriguez Leioako alkateak egin dute obra hasiberrien aurkezpena. Rodriguezek adierazi du La Avanzadako «trafikoa hobetu eta leioaztarren bizimoduetan duen eragina murrizteko» erakunde biek elkarlanean garatu gura dituzten jarduketetako bat dela gaur azaldutakoa. «Epe laburrean udalerria zeharkatzen duten ibilgailuen kopurua ahalik eta gehien murrizteko» beste neurri batzuk ere lantzen dabilta bateko eta besteko teknikiak, Rodriguezen berbetan.



La Avanzadako lanen aurkezpena. © BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

407

milioi euroko kostua du itsasadar azpiko tunela egiteko aukera garestienak, eta 337 merkeenak. Proiektua idazteko lizitazioa 10,5 milioi euroan ateratu du Bizkaiko Aldundiak.

Hori lortzeko aurreikusi den azpiegiturarik handiena, zer esanik ez, itsasadarren azpitik igaroko den tunela da. Zortzi urte inguru falta dira, ordea, erabilgarri egoteko. Urtarrilaren 14an aurkeztu zuen haren ibilbidea Pradalesek berak eta Unai Rementeria Bizkaiko Diputatu Nagusiak. Sarreretakoa bat, hain zuzen ere, Artatzako biribilgunean izango du tunelak; hiru kilometro luze izango ditu, eta 200 metro egingo ditu itsasadarren azpitik. Aldundiaren esanetan, oraindino azterketa ugari egin beharra dago obra zelan egingo den zehazteko. ◀

Erandio Herriarrei egindako inkestaren emaitzak

Udalari nota ona, eta zenbait kezka ere bai

UNAI BREA ▶

Iazko urrian 600 herritarri egindako inkestaren emaitzak aurkeztu zituen Erandioko Udalak urtarilaren 15ean. Aitziber Oliban alkateak azaldu legez, erantzun zutenen %76 «gustura» bizi dira bertan, eta hainbat zerbitzuek dute erandioztarren gehiengoaren onespina, osasun- eta kultura arloetakoak, esaterako. Txanponaren ifrentzuan, besteak beste, segurtasuna dago: lautik hiruri ondo irudituko litzaieke kalean zaindarako kamerak ipintzea.

Txakurrak aske

Kalean aske dabilen txakurren aurkako neurri gogoragoak ez hartzea leporatu diote askok Udalari; arlo horretan eragitea lehentasunezkoztat jo du alkateak, eta gehitu du Udala ordenantza bat diseinatzen dabilela daborduko.

Gai ugariaren gainean itaundu zitzairen erandioztarrei. Gehiengoak balorazio ona eman du arlo gehienetan, eta askok pentsatzen dute Erandiok hobera egin duela. Oro har, 10etik 6 puntu eman diete herritarrek Udalari. Aldiz, aparkalekua eta segurtasuna hobetu beharko lirakeela erantzun dute askok. Alkatearen berbetan, Udalak aintzat hartuko du inkestaren ondorioetako bat, aplikatzea egokia den ala ez erabakitzeko kaleetan zaindara-kamerak ipintzearen alde egongo lirakele erantzun zutenen %75 inguru. Puntuaziorik txarrena, zelangura ere, aparkalekuarentzat izan da. ◀

Sopela Surfa

Dokumental-aurkezpena



Aurkezpen-aitaldiko irudia.

Kepa Acero getxoztar surflari ezagunak bizikletaz egin du Kostaldeko Done Jakue Bidea, surf-ohola aldean daroala, eta ibilbide hori jaso du *Caminando sobre las olas* hamahiru kapituluko dokumentalak. Urtarrilaren 13an egin zuten aurkezpena, Sopelako Kurtzio Kultur Etxean.

Surf Channel kateak eta RTVEk ekoiztu dute *Caminando sobre las olas*, eta lagundu dutenen artean Sopelako Udala dago. Ordu erdiko hamahiru emanalditan, Kepa Acerok Kostaldeko (edo Iparraldeko) Done Jakue Bidea egin izandako bizipenak erakusten ditu dokumentalak. Tarteka, bizikleta utzi eta surf-ohola hartuta hainbat herritan geldialdiak egin ditu Acerok. Horien artean, Sopela eta Getxo. Hala, ikusleek oso ezagunak ez diren txokoak, surfear jarduteko hondartzak egokiak eta tokian tokiko ohiturak eta pertsonaiak ezagutuko dituzte. Besteak beste, Irun, Hondarribia, Zarautz, Donostia, Mutriku, Lekeitio, Bakio, Castro, Santander, San Vicente de la Barquera, Llanes, Ribadesella, Gijón, Ribadeo, Ferrol, Finisterre eta Santiago de Compostelara eroango gaitu dokumentalak.

«Udalak konpromiso irmoa hartu du Sopela surfarentzako leku estrategiko eta erakargarri bihurtu dadin, surfaren enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzeko ekimenak eta jarduerak garatuz eta martxan jarritz», adierazi zuen Josu Landaluzek, bertako alkateak, aurkezpen-ekitaldian; «modu aktiboan ari gara lanean sektoreko erakundeekin».

Teresa Fernandez Enplegu eta Ekonomia Sustapeneko zinegotziak, berriz, azpimarratu egin zuen «surfaren sektoreak dinamizazio ekonomikorako, produktibitatea areagotzeko eta enplegu kualifikatua sortzeko duen gaitasuna» Izan ere, surfa Sopelaren garapenerako «funtseko sektoretzat» jo zuen.

Caminando sobre las olas Euskaltelen Bideotekan, TVEren La2 katean eta Surf Channelen ikusi ahal izango da, besteak beste. Azken biak izan dira telesailaren ekoizleak, hain zuzen ere.

Gorliz Herri-galdeketa «Bigantxak nahi dituzu jaietan?»

Change.org-en animalien ganako tratu txarrak ekiditeko ia 500 sinadura bildu direla eta, Santiago jaietan bigantxen erabileraren inguruko herri-galdeketa egitea erabaki du Udalak. Horren harira, EH Bilduk aipatu du animalien gaineko tratu txarrak ez direla eztabaidagai; hala ere, ikuskizun horiek kentzeko urrats bat emateko asmoz, galdeketa horren alde bozkatea erabaki du. Urtarrilaren 26an egingo duten galdeketa Gorlizen errolatuta dauden 16 urtetik gorakoek bozkatu ahal izango dute; emaitza ez da loteslea izango.

Plentzia Ikasgelak Azterketei aurre egin guran

Urtarrila azterketa-garaia izan ohi da askorentzat. Hala, ikasle horien beharrezko erantzuna eman guran, ikasteko gela bi zabaldu ditu Plentziako Udalak Goñi Portalen eta Topalekun, gune bakoitzean bana. Proba pilotua izango da oraingoa, baina etorkizunean errepikatzea aurreikusi dute udal-arduradunek. Ikasgelak urtarilaren 24ra bitartean egongo dira zabalik. Goñi Portalekoa egunero erabili ahal izango da 09:00etatik 13:30ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte; Topalekukoa, aldiz, martitzen eta eguenean erabili daiteke 09:30etik 13:30ak arte.

Barrika Galdeketa Telefono bidezko inkesta

Garbiketa, hondakinen bilketa, kultur jarduerak... Herritarrek hainbat gaiz duten iritzia jakin guran, telefono bidez inkesta egingo duela iragarri du Barrikako Udalak. Hala, eskaintzen dituzten zerbitzuen egoera eta herritarren balorazioa ezagutuko dituzte udal-agintariak.

Ahalik eta perfil gehienetako pertsonen parte hartzea da asmoa, horregatik aintzat hartuko dituzte herritarren generoa, adina, auzoa... Roberto Muñoz alkateak zehaztu du Udalaren interes handienetako bat Gure Etxeari eman da-kizkiekeen erabileraren gaineko iritzia batzea dela. Inkesta prestatzeko herritarrei eskutitzak bidali dizkiete, eta haien laguntza eskatu dute prozesua behar bezala gada.

Barrika David eta Mario Alvarez Peñari omenezko monolitoari eraso

Harriak suntsituta, ikurriña estalita

Barrikako itsas labar batean David eta Mario Alvarez Peña ETako militanteen omenez (besteak beste) ipinitako monolitoa argazkian ikus daitekeen moduan agertu zen urtarilaren 18an.

UNAI BREA ►

Hainbat ezezagunek guztiz txikituta utzi zituzten David eta Mario Alvarez Peña ETako militanteen, Eli Barrenetxea Marioren emaztearen eta Iñaki Aurrekoetxea Sope errefuxiatuaren omenez ipinitako monolitoak. Haien ondoan zementuaren gainean margotutako ikurriña Espainiako banderaren koloreez estali zuten.

Egun berean Sortuk agiri bat zabaldu zuen, eraso gaitzesteko. Ezker abertzaleko alderdiaren esanetan, «batzuk saiatzen dira herri honen zati baten memoria ezabatzen, eta samina ukatzen jarraitzen dute. Aitzitik, Euskal Herriak ez du benetako elkarbizitarririk ezagutuko sufrimendu guztiak airtortzen ez diren bitartean». Idatziaren amaieran, hondatutako monolitoak omenaldia egiten zieten senitartekoei elkartasuna ere adierazi zien Sortuk.

David Alvarez Peña 1978an hil zen, Leioizko zentral nuklearraren inguruan Guar-



Hondatutako monolitoaren arrastoak. © SORTU

«Herriaren zati baten memoria ezabatzen saiatzen dira», Sorturen ustez.

dia Zibilagaz izandako tiroketaren ondorioz; haren anaia Mario, berriz, 1981an zendu zen, erabiltzen ari zen lehergailuak eztanda egin zionean. Marioren emazte Eli Barrenetxea zenari ere gorazarre egiten zioten monolitoek. Iñaki Aurrekoetxea Sope, berriz, errefuxiatuta zegoela hil zen 1996an, Bordelen, gaixotasun autoimmune baten ondorioz. ◀

Berango Babes Ofizialeko Etxeak

Zabalik dago izena emateko epea

UNAI BREA ►

Otsailaren 28ra bitartean, interesa dutenek aukera edukiko dute Etxebarrin eraikiko diren Babes Ofizialeko Etxeetako (BOE) bat lortzeko izena emateko. Udalaren eta Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. enpresaren arteko hitzarmenaren arabera, Berangon errolatutako koei emango zaie lehentasuna.

Azaroaren 26ko osoko bilkuran onartu zen Berangoko Udalak Construcciones Sukia Eraikuntzak enpresagaz hitzarmena sina-

Baldintzak ikusbide

Udalaren eta Sukia enpresaren arteko hitzarmen osoa udal-bulegoetan kontsulta daiteke (09:00etatik 13:30era, lanegunetan), baita webgunean ere: www.berango.net

tzea, hark eraikiko dituen BOEak eta Prezio Tasatuko Etxeak (PTE) eskuratzeko baldintzak ezartzeko helburuagaz.

BOE bat lortu gura dutenek Construcciones Sukia Eraikuntzak enpresaren bulegoetara joan beharko dute (Getxoko Andres Larrazabal kalearen 2. zenbakian, Areetan), edo 944 541 072 telefono-zenbakira deitu. Errola-zurtagiri bat aurkeztu beharra egongo da, azken sei urteetan gutxienez hirutan Berangon bizi izana egiaztatzeko. Etxe denak bertan bizi direnen artean banatu ezean, udalerrian errolatutako adingabeko seme-alabak dituztenek edukiko lukete lehentasuna. ◀

Urduliz Kale-izendegian aldaketak proposatu dituzte

Genero-ikuspegia txertatu gura dute

IKER RINCON MORENO ▶

Udaletxearen aurreko plazari Eusebia Felisa Ascobereta izena jartzea proposatu zuen joan den abenduko ezohiko osoko bilkuran Elkarrekin Podemos taldeak, EH Bilduren babesagaz; EAJk, aldiz, horren kontra egin zuen, gune horek Elortza plaza izena duelako «duela urte asko».

Elkarrekin Podemos udal-taldeak proposatu du udalerriko kale-izendegiak «ikusgarritasuna» eman behar diola Urdulizko historiaren zati izan diren emakumeei: «Izan ere, euren balioa, bizitza, ohiturak eta lana kontuan hartuta, ez dute merezi ahaztuta geratzea, eta merezi dute hemen bizi garen urduliztarrok eta etorkizunean etorriko diren guztiek euren historia ezagutzea». Talde moreak gogoratu duenez, uztailaren 23ko osoko bilkuran Urdulizko erdiguneko plaza bati izena jartzeko eztabaidan Lehendakari Agirre izena jartzea proposatu zuen Gobernu-taldeak. Horren aurrean,

Eusebia Felisa Ascobereta

«Urdulizko alaba, maistra jardun zuen herrian gerra zibila hasi arte. Nafarroan oporretan zegoela, bertan topatu zuen gerra. Bere lanpostura itzuli nahi izan zuenean, ukatu egin zion Bizkaiko Irakasle-langileak Arazteko Batzordeak, 1938an. Batzorde horrek aho batez onartu zuen Bizkaitik kanpo, eta, gero, Euskaditik eta Nafarroatik bidaltzeko proposamena egitea», Elkarrekin Podemosek azaldu duenez.

Gerra Zibilaren garaian udalerriko alaba izan zen Eusebia Felisa Ascobereta maistraren izena proposatu zuen Elkarrekin Podemosek; hala ere, alferrikakoa izan zen saiakera eta EAJren proposamena gailendu zen. Hala, abenduko ezohiko osoko bilkuran beste saikera bat egin zuen talde ezkertiarrek, oraingoan Elortza plazari izena aldatzeko. Nomenklatura berriak EH Bilduren babesa jaso zuen, baita Inola emakumeen elkartearena ere; baina izena ez aldatzea erabaki zuen Udalbatzak, EAJren kontrakotasunagatik. Jeltzaleen aburuz, izendapen berrirako proposatzen den plazak Elortza plaza izena du duela urte askotatik, «eta auzotar asko egongo dira aldaketa horrekin bat ez datozenak». Hala ere, proposatutako izenaren alde agertu zen EAJ, baita kale-izendegian emakumeen ikusgarritasuna bermatzeagaz ere, eta gai hori osoko bilkura berezi batean landu beharra dagoela azaldu zuen. Horren aurrean, Elkarrekin Podemosek galdetu du ea zein batzordetan, zelan eta noiz egin daitekeen gai hori lantzeko prozesua. ◀

Uribe Kosta U30 Greba Bizi-duintasuna aldarrikatzeko



Grebaren deialdia egin dute herriz herri.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan bilduta dauden sindikatuek (ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru, EHNE eta Etxalde) urtarrilaren 30ean Hego Euskal Herrian greba orokorrerako deialdia egin dute, egun horretan «jauzi bat» emateko asmoz. Horren harira, pentsio, lan eta bizitza duinaren alde egiteko asmoz, mobilizazio horretan parte hartzeko deia egin dute eskualdeko hainbat herritan. Joan den urtarrilaren 18an, zapatuan, gainera, Uribe Kostako mugimendu feministak auto-karabana egin zuen deialdia zabaltzeko.

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN



Kike Amonarrizekin egin dugun bideaz eta edizio honetan egingo dugunaz berba egingo dugu. **Aktibatze prest?**

Otsailak 8, larunbata

11:30, Romo Kultur Etxean

13:30etik aurrera mokadutxo kafetegian
Santa Eugenia plaza 1 – Romo



Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Urte berri on! Baita zuri ere!

Urteari hasiera emateko, lokailu ezagun baten inguruko zalantzak argitzen saiatuko gara: ere lokailua, alegia. Gehien erabiltzen dugunetako bat da, eta itxuraz erabilera errazekoa. Baina erdaren eragina dela eta, askotan huts ugari egiten da, haietan era berean esaten baita testuinguru guztietan.

Emendiozkoen multzoan sartzen da *ere* lokailua, eta aurreko esaldian esandakoari zerbait gehitzeko erabiltzen da. Hainbat moldetan ager daiteke: *ere, ere bai, ere ez, baita ere, ezta ere...* Zertarako erabiltzen den, beraz, badakigu. Hala ere, okerrak erabileran egoten dira batez ere, eta zehazki, ez dagokion tokian jartzegatik. Euskaltzaindiak ez du berariazko araurik eman horretan, baina luze dago deskribatuta gramatiketan. Hortaz, lokailuaren erabilera estandarra aztertuko dugu, euskalki guztietan berdin samarra.

ESALDIAREN HASIERAN EZ. Lehenengo eta behin, argitu beharra dago *ere*-k beti behar duela aurretik erreferentziatzeko osagaia, beraz, horren atzean eta ondo-ondoan joan behar da. Ez da inoiz esaldiaren hasieran jartzen (gaztelaniaz egin ohi denez, *también* adberbioarekin): **Ere joan gaitezke hondartzara; *Ere (bai) esaten du...; *Be(re) bai esan behar da...; *Eta ere bai esan zuen...* Molde horiek guztiak arrotzak dira euskaraz, eta bestelakoak erabili behar ditugu. Izan ere, badira *ere*-ren funtzioa betetzen duten zenbait lokailu (ezagunak horiek ere), baina kokapenarekin arazorik sortzen ez dutenak, ez baitute informazio berriaren jarraian zertan joan: halaber, era berean... Horrela, aurretiko akatsak konpontzeko aukerak zabalitzen dira: *Hondartzara ere joan gaitezke; Esan behar da era berean.*

Kokapenarekin jarraituz, ezin da idatzi aditz jokatu atzizkigabe baten ostean. Adibide baten bidez hobeto ikusiko dugu: **Mikel hemen dago ere; *Nire laguna euskalduna da ere.* Esan bezala, esaldi-amaieran jartzea ez da egokia aditz jokatuaren atzetik badoa. Honela askoz hobeto: *Mikel ere hemen dago; Nire laguna ere euskalduna da.*

ERREFERENTZIAREN ONDOAN. Beste alde batetik, eta aurretik aipatutakoari estuki lotuta, kontuan hartu behar da zeri egin behar dion erreferentzia *ere*-k, eta horren segidan jarri. Esaterako: *Guk goian afalduko dugu. Eta zuek?* Hona askoren eran-

Argitu beharra dago *erek* beti behar duela aurretik erreferentziako osagaia, beraz, horren atzean eta ondo-ondoan joan behar da. Ez da inoiz esaldiaren hasieran jartzen (gaztelaniaz egin ohi denez, *también* adberbioarekin).

tzuna: **Goian ere.* Hala ere, galdera ez da NON afalduko den, pertsonari egiten zaio erreferentzia, hortaz, horren ostean jarri behar da lokailua: *Guk ere bai.*

Erabilerarekin ari garela, aditzak badu garrantzia lokailuaren erabilera-moldean. Batzuetan *ere*-ren ondoren trinkoak erabiltzen ditugu (daki, dator, noa...), baina *ere* ezin da galdegiaren lekuan jarri (ez da sekula galdegi); eta askotan horixe gertatzen da: **Nik ere dakit.* Bada, hori gerta ez dadin, BA- jarri behar diogu aditzari, eta horrela aditzaren baietza bihurtzen dugu galdegai: *Nik ere BAdakit.* Aditzaren baietza ez bada galdegi, izango da bestelako nabarmen bat egin nahi delako; horietan, beraz, beste osagai bat sartzen dugu aditzaren aurretik. Esate baterako: *Ni ere hondartzara noa.*

Bestetan, ordea, zenbait esalditan aditza ezabatu egiten da, eta horrelakoetan *bai* edo ez behar izaten du esaldiak. Ogia nahi al duzu? Erantzun egokia hau da: *Bai, eta txokolatea ere bai.* Eta ez *Bai, eta txokolatea ere.* Horren harira, gogoan izan behar dugu aditza eta *bai* batera erabiltzea ez dela zuzena. Hona hemen: **Bai, eta txokolatea ere bai nahi dut.*

BAITA ERE, EZTA ERE. Aditza ezabatuta beste forma hauek ere erabiltzen dira, aurrez aipatutakoak kideak, alegia: *baita (bai eta)...ere* eta *ezta (ez eta)...ere.* Azken horiek ere zalantza franko sortu ohi dute; batzuetan, alabaina, esaldiaren hasieratik eman nahi izaten da emendio kutsua, eta ez soilik osagai bati. Horrek *baita ere* hasieran erabiltzeko nolabaiteko beharra sortzen du, eta sarritan entzuten da *Baita ere esan digute (...)* egitura. Zuzena al da? Ez al du izan behar *Baita(...)* ere? Bada, Euskaltzaindiak ez du erabat txartzat ematen (Mitxele-nak berak erabili izan ditu, eta jasota daude horrelakoak); baina, zalantzarik gabe, arruntena *baita (...)* ere egitura da; beraz, horretara jo behar dugu. Ez ahaztu, baina, lehen aipatutakoa, zeregin horretarako beste lokailu arrunt eta egokiagoak ditugula. Hizkuntza aberatsa dugu-eta gurea. ◀



BASERRIKO denda

LANTZARTE AUZOA, 13 BERANGO
BARRIO LANTZARTE, 13 BERANGO

699 81 12 89

SERVICIO A DOMICILIO
ETXERAKO ZERBITZUA

SERVICIO A COLECTIVIDADES, TXOKOS Y GRUPOS DE CONSUMO
KONTSUMO TALDE TXOKO ETA KOLEKTIBITATEI ZERBITZUA

Baserriko sasoiko produktuak
Productos de caserío de temporada

Produktu ekologikoak
Productos ecológicos

Goi-mailako produktuak
Productos selectos y gourmet

Valentziako zitrikoak
Cítricos valencianos

Sasoiko fruta ekologikoak
Frutas de temporada ecológicas

Opari egiteko otzaran-egokituak
Cestas de regalo personalizadas

Produktuak Km0
Productos Km0

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo eta Berango artean

Gatz-ozpinetan Izei Azkue

Udagoieneko loreak, gustuko al dituzue?

Onddo eta perretxikoen mundua izugarri handia da eta gure osasunerako eta naturarentzako onura handiak eskaintzen dituzte organismook. Sukaldaritzarako ere askotan erabili izan dira, eukera ugari dituzte gure ahosabaiaren mesederako.

Onddoen eta perretxikoen arteko ezberdintasuna eza-gutzea garrantzitsua da. Izan ere, pertsona askok onddo deitzen diete *boletus* familiako perretxikoei, baina onddoak, egiatan, lur azpian aurkitzen dira. Hori dela eta, esan beharra dago perretxikoak onddoaren fruituak direla; hau da, onddoak perretxikoen bidez ugaltzen dira. Jakina eta aski ezaguna da perretxikoek sukaldaritzan ematen dizkiguten aukerak; hala ere, nabarmentzekoa da ere organismook ekosisteman betetzen duten papera, erabat garrantzitsuak dira eta. Zergatik? Segi irakurtzen!

Onddoek harreman estua dute zuhaitzekin; adituek esan ohi dute «lur azpiko internet» edo «sare sozial» bat osatzen dutela, metaforikoki, noski. Horri esker, zuhaitzekin mesede-harreman batean bizi dira: horien sustraiak inguratzen dituzte eta, hala, elikagaiak hartzeko erraztasun handiagoa ematen diete. Bestalde, zuhaitzek onddoei behar dituzten nutrienteak ematen dizkiete, mesede-truke bat balitz bezala.

Klima-aldaketari aurre egiteko ere garrantzitsuak dira; zuhaitzek atmosferako CO2 kontzentrazioa txikitzen dute, onddo ektomikorrizikoak, aldiz, karbono-dioxido hori basoen lurzoruan gordetzeaz arduratzen dira. Naturarentzako duten garrantziaz aparte, gure osasunerako onuragarriak ere badira. Ilea jaustea eragozten dute, koipe eta kaloria gutxi dituzte, minbiziari aurre egiteko lagungarriak dira eta kolesterola erregulatu egiten dute. Gainera, memoriarako oso onak dira, *portobello* barrerogorriak adibidez, eta duten ur-kantitate handiari esker azalerako onuragarriak ere badira. Duten selenio-kopuruari esker desintoxikaziorako aliatu bikainak dira; gainera, hurrengo mineralak eta bitaminak ere badituzte: burdina, fosforoa, iodoa, kaltzioa, zinka eta A eta B bitaminak. Beraz, oso elikagai osasungarriak dira.

Esandako guztiagatik, udagoieneko loreak izenez ezagunak diren organismo hauek mantentzeko ardura handia dauka-gu, gero eta afizio handiagoa baitago perretxikoen inguruan.



Osagaiak
Zizahoridun risottoa
Arroza, zizahoriak, tipula, gazta, gazta, piperbeltza, gurina eta ura.

Mendira goazenean garrantzitsua da bertan aurkitzen ditugun naturaren opariak babestea jarduera arduratsuak eginez eta errespetu handiz ibiliz.

Sukaldaria eta perretxikozalea naizen heinean, aukera du-dan guztietan mendira joaten naiz jangarrion bila, horiekin era askotako platerak egiteko. Sukaldaritzan, perretxikoek au-dera ugari ematen dute; hala ere, perretxiko bakoitzeko ideia bana izan ohi dut eta askotariko platerak egiten ditut perretxi-ko mota bakoitzarekin.

Udagoieneko onddozuriak, onddo pinuak edo onddobeltzak hartzen ditudanean, gehienetan, xerratan moztu eta plantxan egiten ditut, gatz eta olio apurra botata soilik. Hala ere, horiek ondo ez egotekotan, bexamela egiteko erabiltzen ditut, kroke-tak edo piperrak betetzeko. Esnegorriak, aldiz, gisatu egiten di-tut patatekin batera, eta tripaki argiak tortillak egiteko erabil-tzen ditut. Nire gustukoena, ostera, zizahoriak dira, lehortzeko duten erraztasunagatik, eta zaporeagatik noski. Horiek, gehie-netan, risottoa egiteko erabiltzen ditut, eta errezeta hori ekarri dizuet oraingoan.

Plater hau egiteko behar ditugun osagaiak hurrengoak dira: arroza, zizahoriak, tipula, gazta (risotto hau egiteko zapore gu-txiko gazta erabili ohi dut), gazta, piperbeltza, gurina eta salda edo ura. Hasteko, tipula frijitu egingo dugu eta urre-kolorea duenean zizahoriak gehituko dizkiogu; niri gustatzen zait zati txikitik mozte, baina moztu gabe ere bota ditzakegu. Zizak behin eginda daudela, arroza botako dugu eta salda edo ura bo-tatzen hasiko gara, gutxika gutxika. Momentu oro irabiatzen egongo gara eta, behin arroza eginda dagoela eta ur apurra gel-ditzen dela (bestela oso siku geldituko da), gazta, gazta eta gu-rina bota eta indarrez irabiatuko dugu risottoa gurintzeko as-moz. Amaitzeko, piperbeltza norberaren gustura botako dugu, hala nahi izatekotan, bestela ez da derrigorrezkoa.

Espero dut errezeta gustuko izatea eta zuen etxeetan ere prestatzea, on egin eta urte berri on! ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

hiruka app

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

- Agenda
- Albisteak
- Argazkiak eta bideo albumak
- Geolokalizazioa
- SOS botola

Deskargatu!

Zientzia etxeko atarian Eduardo San Andres

Nadia eta Joana ahizpen bidaia miresgarria

Denbora atzamarren artean ihes egiten digun fluido labainkor eta ikusezina da, baina poetek eta filosofoek eskaini dizkiguten erantzunak alde batera utzita... Zer da denbora? Aurrera doa etengabe? Beti erritmo berberean? Ondorengo testuan ikusiko dugunez, errealitatea ez da beti senak adierazten digun modukoa.

Robert Zemeckis zinema-zuzendariaren 1985. urteko *Back to the future* film zoragarrian, Marty McFly (Michael J. Fox) protagonistak bidaia bat egiten du bere lagun batek, Doc izeneko zientzialari bitxiak, asmatu duen denboraren makinan. Makina horrek DeLorean auto ikusgarri baten itxura du, eta Marty bertara igo eta iraganera doa, bere gurasoak nerabeak ziren garaira. Sasoi hartan Martyren gurasoak elkar ezagutzeko zorian zeuden, baina dena korapilatzen da bere ama berarekin maitemintzen denean. Martyren betebeharra bere gurasoak elkarrekin maitemintzea eragitea izango da, begi-bistako denbora-paradoxa bat ekiditeko.

Film horren argumentua oso deigarria da, baina, badu inongo oinarri zientifikorik? Posible da denboran zehar bidaiatzea? Ikus dezagun... Argi dago denok ari garela etorkizunerantz bidaiatzen, baina erritmo berberean egiten dugu guztiok? Galdera absurdoa da hori?

Izan bitez bi ahizpa biki, Nadia eta Joana. Biek 10 urte dituzte, eta Joanak ibilalditxo bat egitea erabakitzen du, v abiadura jakin batekin. Gero, bere ahizparengana bueltatuko da.

Izan bedi t Nadiarentzat igaro den denbora, eta t' Joanarentzat igaro dena, Joana bidaiatzen egon den bitartean. XVII. Mendean Isaac Newtonek planteatu zuen fisikak, baita senak ere, esaten digute bientzat denbora-tarte berbera igaro dela, hau da:

$$t = t'$$

Baina 1905. urtean Albert Einsteinek, bere erlatibitatearen teoriaren markoan, aurkitu zuen bi denbora-tarte horien arteko lotura ez dela hain sinplea. Beste modu batean esateko, denborak erritmo ezberdinean egiten du aurrera norberaren abiaduraren arabera. Zenbat eta bizkorrago mugitzen

Harrigarria dirudien arren, etorkizunera bidaiatzea posiblea da, baina momentuz, teknologiak ez digu aukera ematen efektu erlatibista hori nabaria izateko beharrezkoak diren abiadurak lortzeko. Gizakiak sortutako ontzirik bizkorrena Juno izeneko zunda da, 2016. urtean Jupiterre iritsi zena, eta planeta erraldoi horren eremu grabitatorioak lagunduta segundoko 73 kilometroko abiadura ikaragarria harrapatu zuena. Getxo-Gasteiz bidaia, segundo batean! Baina garbi dago 73 oso txikia dela 300.000rekin alderatuta. Kasu horretan $v/c=0,00024$, beraz efektu erlatibista egon badago, baina ia neurtezina da. Hala ere, hegazkinez bidaiatzen duzun bakoitzean apur bat gazteago bueltatzen zara!

zaren, denbora orduan eta motelago pasatzen da zuretzat. Eta t eta t' arteko harremana honako hau da:

$$t' = t \cdot \sqrt{1 - (v/c)^2}$$

Formula horretan v mugitzen ari denaren (Joana) abiadura da, eta c argiaren abiadura, 300.000 km/s (argi-izpi batek 300.000 kilometro egiten ditu segundo batean!). Ikus dezagun zer eragin daukan t biderkatzen duen gai arrotz horrek.

Joanaren abiadura «normala» baldin bada, hau da, c baino askoz eta askoz ere txikiagoa, orduan v/c gaia ia-ia zero izango da, eta formulak $t=t'$ itxura lasaigarria hartzen du, baina v handituz badoa, c -rekin konparatzeko modukoa izan arte, orduan hasten dira komeriak... Hartu kalkulagailua:

Baldin eta $v=100.000$ km/s bada, hau da, Joana oso-oso-bizkor badoa, orduan $t'=t \cdot 0,94$, hau da, t' -ren % 94 da. Nadiarentzat 10 urte igaro badira (t), Joanarentzat $10 \cdot 0,94=9,4$ (t'). Orain, Nadiak 20 urte ditu eta Joanak 19,4 urte. Baina ez ziren bikiak?

Baina $v=299.000$ km/s bada, orduan $t'=t \cdot 0,08$ orain t' -ren % 8 da. Nadiarentzat (eta Nadiarekin gelditu zen guztia-arentzat) 100 urte igaro badira, Joanarentzat zortzi baino ez. Orain Joanak 18 urte ditu eta Nadiak 110 (bizirik badirau). Efektua da Joanak 92 urte bidaiatu dituela etorkizunera!

Joanak berriro denboran atzera egin nahi duela erabaki du. Ibilbide berbera eta abiadura berberaz egin du kontrako noranzkoan, baina horrela beste 92 urte aurrera bidaiatzea baino ez du lortzen, efektua abiaduraren arabera baino ez delako, eta ez ibilbidearen arabera. Badago 184 urte etorkizunean. Izutzen ari da benetan. Bere garaira bueltatu nahi du. Zer egin dezake? Posible da iraganera ere bidaiatzea? Erantzuna, beste batean! ◀



EMAN BOSTEKOA HIRUKARI!

Hiruka komunikazio-taldeak 5 urte betetzen ditu aurtan, eman bostekoa eta lagundu proiektua aurrera eramaten.

LEHENENGO BOST LAGUNEK URTE OSOKO HARPIDETZA DOAN!

- 1 ▶ 5€-ko diru-sarrerara egin: ES84 3035 0421 48 4210000739 (LABORAL KUTXA)
- 2 ▶ Zure izen-deiturak bidali: publi@hiruka.eus
- 3 ▶ Etorri gure bulegora eta jaso zure poltsa!

-Sustapen hau izakinak agortu arte egongo da indarrean-



Historiaren ganbara Iñaki Libano

Goazen Uribe Kostako historiaurrea ezagutzera

Eskualdeko historiaurrearen lehenengo arrasto arkeologikoen berri eman zuen Antonio Aguirre Andrések 1955ean *Materiales arqueológicos de Vizcaya* lanean. Horri esker, José Miguel de Barandiaranek, eta Aguirrek berak, hainbat zundaketa egin eta *La estación prehistórica de Kurtzia* kaleratu zuten 1959an.

José Miguel de Barandiaranen arabera, Butroe ibaiaren eta Ibaizabal ibaiaren itsasadarren arteko kostaldea da Kurtzia, hau da, Plentzia eta Getxo udalerrien arteko eremua. 1959an argitaratutako *La estación prehistórica de Kurtzia* lanak argi utzi zuen zelako garrantzia izan zuen Uribe Kostak historiaurreari dagokionez. Gaur egunera bitartean, askotariko ikertzaileak lanean ibili dira inguruotan duela 300.000 urte gure arbasoek zelan bizi izan ziren argitu guran.

Bizkaiko historiaurrearen inguruko ikerketak kobazuloetako testuinguruei lotuta egon dira ia gehienetan. Uribe Kostan, aldiz, ez digu mota horretako establimendurik, ez dagoelako kobazulorik gurean. Bertoko geologia ez da karstikoa; horren ordez, arroka sedimentarioez osatutako formazio geologikoak ditugu, hala nola arbelak, margak eta hareharriak. Horiek lurzorua erositua ahalbidetzen dute, kostaldeko gune oso egokiak sortuz establimenduak garatzeko aire zabalean, hareatzetan edo mendien magaletan, iturburu ondoan, basoen inguruan eta itsasotik hurbil.

Itsas-sedimentuz osatutako formazio geologiko horiek Flysch izena dute, eta duela 65 milioi urte sortu ziren. Barrika, Sopela, Plentzia eta Gorlizko lurmuturrak horien erakusgarri dira, oso bereziak, estratu bereziak eta geologikoki bakarrak direlako. Flysch horietan, gainera, naturan aurki daitezkeen arrokarik gogorrenetako bat agertzen da: sukarria. Horren presentziak eragin zuen Uribe Kosta historiaurrearen lehen lerroan jartzea, Paleolito eta Neolito-Kalkolitoko aztarnategi ugari agertu baitira inguruotan.

Sukarriaren gogortasunak eta hura hausteko erraztasunak askotariko erremintak sortzea ahalbidetu zuen. Izan ere, duela 300.000 urtetik duela 4.000 urtera arte, sukarria izan zen tresnak egiteko lehengai nagusia, eta horrexegatik igaro ziren horrenbeste gizatalde inguruotatik denbora-tarte horretan. Barrikako Kurtziomendi eta horren inguruko eremuak material horren harrobi garrantzitsuak izan ziren. Bertan oso erraza



Bifaz-a

200.000-150.000 urte

Goiko bifaz-a (mozteko, karrakatzeko eta zulatzeko historiaurreko harri-erreminta) Barrikako Errementariena aztarnategian berreskuratu zuten, Ander Deuna ermitaren ondoan. Uribe Kostan aurkitutako lanabesik zaharrena da eta gaur egun Bilboko Arkeologia Museoan dago. Teknologia hori orain dela 200.000-150.000 urtekoa da, «Barrikako historiaurreko harribitxia».

zen sukarria eskuratzea, baita arroka horiek lantzea ehizarako erremintak eta egunero erabiltzeko bestelako lanabesak egiteko, besteak beste.

Inolako esajeraziorik gabe esan genezake Kantauri isurialdean aire zabaleko aztarnategi gehien dagoen ingurua dela Uribe Kosta. Gainera, horietakoren bat Europako garrantzitsuenetako bat da enkoadratutako kronologia dela eta. Berbarako, Barrikako Errementariena, Meñakoz eta Aranbaltza; Sopelako Landaluze; Getxoko Aretxabaleta; eta Berangoko Agirremendi oso esanguratsuak dira eta azken urteotan askotariko ikerketak egin dira, baita emaitzak publikatu ere. Baina ez dira bakarrak. Azken 40 urteetan historiaurreko hainbat arori lotutako 60 aztarnategi baino gehiago aurkitu dira eskualdean sakabanatuta. Hala ere, argitu beharra dago Barrikan kontzentratzen direla gehienak, Kurtziamendiko sukarriaren gertutasunagatik hain zuzen.

Historiaurreko etapa ia denen aztarnak aurki daitezke gurean. Behe Paleolitoko arrastoak Sopelako Moreaga eta Mendietan zein Barrikako Errementariena aztarnategietan topa daitezke, duela 300.000-150.000 urtekoak. Erdi Paleolitokoak (duela 110.000-40.000 urte) asko dira inguruotan, hala nola Barrikako Kurtziamendi, Meñakoz eta Aranbaltza zein Berangoko Maritxuri eremuetan. Goi Paleolitoak ere presentzia nabarmena du eskualdean (duela 40.000-10.000 urte) Berangoko Agirremendi eta Urtubi; Barrikako Aranbaltza eta Meñakoz; zein Sopelako Iturralde eta Kukullu aztarnategietan. Neolito eta Kalkolitoari dagokionez, adierazgarriak dira Sopelako Landaluzen egindako aurkikuntzak, baita Barrikako Muriola, Aranbaltza eta Meñakoz zein Berangoko Urtubi aztarnategietan agertutakoak ere. Azken garaiotako tumuluak eta dolmenak ere ikus daitezke Sopela eta Berango arteko Munarrikolandan eta Gorlizko Arrimuniaundin.

Uribe Kostako historiaurreko arkeologiak potentzial handia du, eta hori jakinarazi eta babestu beharra dago. ◀

IBAIZABAL ARGITALETXEARI ESKER, UMEENTZAKO HIRU LIBURU-SORTA HAUETAKO BAT IRABAZ DEZAKEZU!





Egurrezko itsasontziak berreskuratzen

Haien denbora librean egurrezko ontzi zaharrak berreskuratzen dituzte Itxas Egurra Haizean elkarteko kideek. 2009an sortutako elkarte horrek 25 kide ditu gaur egun eta daborduko 20 ontzi berreskuratu dituzte. Orriotara ekarritako irudietan ikusiko dituzue egunotan Uribe Kostan konpontzen ari diren bi ontzi; hirugarren bat Bilbon daukate. Aitortu digutenez, neguan behar egitea ez da batere lan erraza, ez dutelako inolako lokalik.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶



Egurra da ontzi zaharren konponketarako oinarria, eta hura ona denean errazagoa izan ohi da konponketa

Hamar urteotan konpondutako ontzirik zaharrena 1929koa da, eta 1975ekoa berriena. Diotenez, egurra kalitatezkoa izan behar da, baina gaur egun arotz asko ez dagoenez, ez da lan erraza lehengai onak topatzea, eta ondorioz, konponketak egitea. Ontzior sailhetsak lantzeko, berbarako, lurrunean sartu egiten dira oholak eta biguntzen direnean, azkar tolestu eta iltzeakaz kokatzen dituzte.





Algortako Portu Zaharrean ikus daitezkeen ontziak haiek konpondutakoak dira, eta urez beteta egoteak badu arrazoi bat.

Ontziak muntatzerakoan tartea utzi behar da oholen artean, zentimetro erdi inguru, egurra zabalduko delako uretan murgiltzean. Hori dela eta, oso ohikoa da egurrezko ontzi zaharrok urez beteta ikustea, ohola zabalik mantentzeko umel egon behar delako; izan ere, horiek sikatuz gero, ohola denak banandu egingo dira.





Eskuko lanak dira egin beharrekoak, eta behar duten tresneria hain berezia da, haiek sortzen dituztela horietako batzuk.

Lixa, xerra, mailua eta haiek sortutako tresnak dira gehien erabiltzen dituztenak lanotarako. Egurraren formak lurrunagaz bigundu eta tolestu, eta lixagaz fintzen dituzte. Era berean, sarjenta asko behar dituzte ontziaren xafiak eta saihetsak lotzen joateko. Brontzezko iltzeak eta errematxeak erabiltzen dituzte, bigunagoak direlako eta zailagoa delako itsasoko kresalaren ondorioz ugertzea. Orokorrean, ontziek egitura gogor eta malgua izan behar dute, eta material ona izatea funtsezkoa da.





Hilabeteak edo urteak eman ditzakete ontzi bat konpontzen, horren hasierako egoeraren arabera.

Itxas Egurra Haizean elkarteko kideek denbora librean egiten dituzte lanok, eta horretarako leku aproposik ez dutenez, gurako zutena baino gehiago luzatzen zaizkie beharrok. Getxoko Udalari laguntza eskatu diote lanok egiteko tokiren bat uzteko; bitartean, haien etxeetan edo alokatutako lekuetan dabilta. Gaur egun Uribe Kostako hainbat portutan ikus ditzakegu haien ontziak, baita udan nabigatzen ere.





ITXAS EGURRA HAIZEAN



ITXAS EGURRA HAIZEAN



Álvaro Alvin Bayona Kirolaria

«Bizitza etengabeko erronka bat da»

Kirolaren sinonimoa da Álvaro Bayona, Alvin lagunentzat; denaren gainetik kirolaria da bera. Surfa eta eskia; olatuak eta elurra. Adrenalina. Elur-jausi bat bere bokaziotik aldentzen saiatu zen orain hamar urte, gurpildun aulki batera kondentatuz. Hala ere, horrek ez zituen bere animoak kikildu eta bizitzari ikuspegi berria eman dio katalanak. Besteak beste, Alvin Bayona Fundazioa sortu du, egokitutako kirolari ahotsa emateko eta behar dutenei laguntzeko.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIAK: ALVIN BAYONA FUNDAZIOA ►

Paraplegiko utzi zaituen istripua izan zenuen orain dela hamar urte. Zer gertatu zen? Masellako eski-gunean (Girona) izan zen, 2010ean. 19 urte nituenetik egin izan dut lan bertan, oso ondo ezagutzen dut inguru hori Espainiako Federazioko snowboardeko entrenatzailea eta mendiko gida izan naizelako. Hala, egun batean, pistatik kanpo eskiatzera joan nintzen lagun batzuekin eta garaiko nire bikotekidearekin. Den-dena eskiatzeko ondo zegoela probatu nuen, elurra trinkotuta zegoela ziurtatzeko; hala zirudien, ondo zihoan dena, baina bat-batean mendi osoa mugitzen hasi zen. Ez nuen ezer ulertzen; plaka oso bat moztu egin zen eta elur-jausia hasi zen ni nengoen lekutik eta 30 metroko amildegi batetik bota ninduen.

Mendiko aditua zarenez gero, zelan erreakzionatu zenuen une horretan? Banekien zer egin behar nuen; besoak astintzen hasi nintzen igeri egiten egongo banintz bezala elurraren gainetik mantentzeko. Une horretan ikusi nuen elur-jausiak nora botako ninduen; hala, zutunik jarri nintzen salto egiteko prest. Izan ere, erortzekotan, nahiago nuen hankekin erortzea horiek apurtzeko, besterik ez. Hala ere, altxatzean taula harri batekin kargatu zen azkenengo momentuan eta buruz behera erori nintzen... Bizkarra apurtu nuen, zati bitan.

Kirola zure pasioa da, baita zure bizimodua ere. Zer sentitu zenuen gurpil-aulkian bizitza osoa emango zenuela jakitean? Vall d'Hebron ospitalera eraman ninduten eta bertan eman nituen hilabete bi; egun batzuk Zainketa Intentsiboetako Unitatean eta gainontzekoa gelako ohean etzanda. Une horretan hasi nuen errehabilitazioa eta, bitartean, halterak ekartzeko eska-



Dokumentala

Istripuaren ondorengo errehabilitazioa eta kirolera bueltatzeko lehenengo esperientziak biltzen dituen dokumentala argitaratu dute.



Camí a Alaska

QR hau eskaneatu dokumental osoa ikusteko.

tu nion amari, ohean botata nengoen bitartean besoekin ariketa batzuk egin ahal izateko. 50 grapa nituen bizkarrean, baina ez nuenez ez minik ez tentsiorik nabaritzen, entrenatzen hasi nintzen. Gero, gurpil-aulki batera pasa ninduten, eta orduantxe hasi nintzen lasterketak egiten pasabideetatik. Asko aspertzen nintzen ospitalean...

Gerora Guttman errehabilitazio zentrora bidali ninduten eta bertan eman nituen 6-7 hilabete inguru. Kirol-teknikaria naitenez eta kirola asko gustatzen zaidanez, oso motibatuta egon nintzen bertan, ia egun osoan entrenatzeko aukera genuelako. Hala ere, hasierako ariketak sinpleegiak ziren niretzat eta, pazienteen kopururako fisioterapeuta gutxi dagoenez bertan, erreklutatu egin ninduten ni bezala zegoen jendea laguntzeko. Pertsona berriren bat sartzen zen bakoitzean berarekin jartzen ninduten nolabait laguntzeko. Dokumental bat egin genuen esperientzia horiek denak batzen dituen: *Camí a Alaska*. Oroitzapen oso onak ditut, igarotako lazeria denaz aparte, oso ondo pasatu nuen bertan.

Paraplegiko utzi zintuen; alabaina, istripuak ez du lortu zu geldiaraztea eta kirola egiten jarraitu duzu. Kostaldekoa naiz ni eta istripua izan aurretik soroslea ere izan naiz. Hala, errehabilitazioa bukatu eta segituan igeri egiten hasi nintzen, hankak olagarro batekin lotuta. Entrenatzen hasi nintzen eta handik eta gutxira Espainiako talde olinpikoan sartzea lortu nuen. Hainbat txapelketa irabazi nituen eta Berlingo Europako Txapelketan bosgarren postua eskuratu nuen. 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetan parte hartzeko minimoak egin nituen, baina zori-tzarrez lesionatu egin nintzen. Sorbaldak operatu behar nituen,

baina dirurik ez nuenez eta nagusiegia nintzen kirolarien beka jasotzeko, ezin izan nuen egin. Galdu nuen Joko Olinpiko batzuetan parte hartzeko aukera, eta hori oso kolpe handia izan zen niretzat; etsitu nintzen eta psikologoarenera jo behar izan nuen. Hark esan zidan: «Ez egin ezer Espainiako Federazioaren alde; horrek ez dizu ezer ordainduko, beraz, ez astindu gehiagore burua, eta egizu zure bizitza».

Ordutik igeriketa baztertu duzu? Bai, igeriketa profesionala alde batean utzi, wake-boarda probatu eta eskiatzen eta surf egiten hasi nintzen berriro ere. Nik benetan nahi nuena egiten hasi nintzen, baina segituan ohartu nintzen espainiar Estatuan ez dagoela ia ezer egokituta guretzat. Ni gai nintzen surf egiteko taula normal batekin, baina wake-boarderako ez zen ezer existitzen. Ur-eskiko aulki arrunt batekin egiten nuen, baina gehiago nahi nuen, horrekin ezinezkoa zelako saltoak egitea.

Eta materialik ez zegoenez, zuk sortu zenuen egokitutako aulki bat, ezta? Bai, apurka-apurka ikertzen hasi nintzen, ea zer egin nezakeen ikusteko. Egokitutako muturreko kirolean ez zegoen inolako erreferenterik eta Frantziara joan nintzen 2013an. Han wake-boarderako saltoak egiten zuen talde bat zegoen eta nire buruari esan nion: «Hori egin nahi dut!». Prototipoak egiten hasi nintzen eta mota horretako kirolek egokitutako aulki bat sortu nuen. Espainiar Estatu osotik ibiltzen hasi nintzen prototipo hori erakusteko eta txapelketa batean zutunik zihoan jendearen kontra lehiatu nintzen. Izan ere, garai horretan uretako eskia eserita egiten zuen bakarra nintzen ni Estatuan eta ez nuen norekin desafioa egin, eta berdin segitzen dugu oraindik ere; hala ere, pixkanaka jendea kontu hau ezagutzen hasi da, eta ikusten ari da posible dela mota horretako kirolak jesarrita zaudela egitea.

Egokitutako aulki hori, gainera, bestelako ur kirolekarako baliagarria da baita ere. Bai, Kantabriara joan nintzenean hasi ginen paddle surfera ere egokitzen. Wake-boarderako aulkia hartu eta paddle surfeko taulari lotu nuen zingila batzuekin. Izugarri ondo funtzionatu zuen eta sistema osoa garatzen hasi nintzen ospitaleekin batera errehabilitazioan erabili ahal izateko; mundu mailan pioneroak izan ginen horretan. Ordutik, patentea atera eta aulki horiek fabrikatzen ibili naiz. Nire ideia da Estatuko kostalde osoan egotea aulki horiek gorpildun aulkian doan jendeak aktibitate horretaz gozatzeko aukera izan dezan.

Zeintzuk ezaugarri ditu zuk egokitutako aulkiak? Aurretik beste hainbat egin dira, baina ez dira ondo jartzen eta eskaintzen duten posizioa ez da egokiena paraplegiko batentzat; ondorioz, ez dira muskuluak ondo lantzen. Nireak, aldiz, gerrikoetik gora zuzen jartzea ahalbidetzen du arraunean arazo barik egin ahal izateko. Horri esker distantzia luzeko bideak eta txapelketak egin ahal izan ditut paddle surfean; beste sistemekin ezinezkoa litzateke hori.

Surfak ere zeresan handia izan du zure egunerokotasunean azken urteotan. Istripua izan aurretik surfa egiten nuen askotan. Hala, olatu txikiak hartzen hasi nintzen. Jakin banekien arriskutsua dela paraplegikoontzat; hori dela eta, hasieran ez nuen asko promozionatu kirol hori. Baina gerora, apurka-apurka, jendearekin lantzen hasi nintzen, kostaldetik gertuko olatu txikiak hartuta, betiere segurtasuna bermatuta eta salbamendu-jaka jantzita.

Aitor Francesena Gallo surflaria ezagutu zenuenean, ordea, jauzi kualitatiboa eman zenuen egokitutako surfaren promozioan. Zer dela eta? Bai, Gallo erreferente bat da surfean eta bera ezagutzeko aukera izan nuen aurrenekoz 2015ean. Urte horretako egokitutako munduko surf-txapelketan parte hartu nahi nuen, eta Kaliforniakoekin (AEB) jarri nintzen harremanetan. Orduan, Espainiako Federazioek deitu zidaten esanez talde-txo bat sortuko zutela horretarako eta bertan surflariitsu bat zegoela: Gallo. Hala, egun horretatik aurrera egokitutako surfaren



Surf Egokituko Nazioarteko Txapelketa

Joan den uztailaren 13an eta 14an nazioarteko surflariz bete zen Sopela, Arrietara hondartzan egin zuten Surf Egokituko Nazioarteko Txapelketan parte hartzera etorri baitziren mota denetako ezgaitasunak dituzten eta kirol horretan diharduten 70 profesional. Peña Txuri Surf Taldeak, Alvin Bayona Fundazioak eta @haimandelpozo kontuak antolatu zuten ekimena.

promozioan ibili gara jo eta ke, baita kite-surfa, windsurfa, wake-boarda eta paddle surfa ere. Horiexek dira jendearekin lantzen ditudan bost kirolak.

Iaz, gainera, nazioarteko lehenengo surf egokitu txapelketa antolatu zenuen Sopelan. Zelakoa izan zen esperientzia? Aspalditik gogo ikaragarria nuen mota horretako ekimen bat antolatzeke. Hala ere, ni ez naiz inor mundu honetan eta Euskal Herriko surflariak dira «agintzen» dutenak. Urte askoan ibili naiz Sopelan surfa egiten, eta jende asko ezagutzen dut han. Gainera, bertako hondartzak egokitutako surfa egiteko leku paregabeak dira, irisgarritasunagatik batez ere. Hala, surflari-talde bat elkartu eta hori antolatzeari ekin genion.

Argi genuen nazioartekoa izan behar zuela ekimenak, mailarik altuena izan ahal izateko. Lan ikaragarria egin behar izan genuen den-dena aurrera eraman ahal izateko, baita hainbat ezustekori aurre egin ere. Denera, nazioarteko surflari asko etorri zen eta azkenean esperientzia ikaragarria izan zen.

Aurten berriro egitea aurreikusten duzue? Ondo legoke berriro egitea, Gallo antzeko zerbait antolatu nahi duelako Zarautzen, eta beste batzuek Biarritzen. Hala, Sopelakoa eginez gero zirkuitu polita izango litzateke. Baina momentuz ez da ezer mugitu. Dirua behar dugu hori dena berriro aurrera eraman ahal izateko, baita lanean hasi ere... Urtarrilaren erdian gaude, eta inork ez badu ezer egin ez dut uste dagoeneko ezer atera ahal izango dugunik aurrera.

Zergatik zaude horren tematuta egokitutako kirol horien denen promozioan? Nigatik eta jendeagatik egiten dut dena. Kirol teknikaria naiz formakuntzaz, eta honek denak aitzakia ematen dit jendea kirolean murgiltzeko eta trebatzeko. Hortik dator Alvin Bayona Fundazioa egitearen ideia, baita kirol hauetan



Bayona munduko txoko askotatik ibili da urteotan bere patentea aurkezten.

trebatzen jarraitzea ere. Zentzu batean, honi denari esker nire lehengo bizitzarekin jarraitzea ahalbidetzen dit. Oso zorrotza naiz profesionalki eta aurrera egitea gustatzen zait; hala, surfak, eta kirolak orokorrean, modu batean edo bestean, horretan lagundu dit.

Indar handia jarri dugu egokitutako surfaren promozioan. Hasiera batean ni bakarrik nengoen Espainiako txapelketan, Galizian egin zenean. Furgonetan joan nintzen, bakarrik, eta jendeak hareatik arrastaka zihoan pertsona bat ikusi zuten, uretan sartu eta olatuak hartzeko. Gero, *Gallo* etortzen hasi zen, eta bera oso ezaguna denez gero, egokitutako surfa garrantzia lortzen hasi zen. Ni bakarrik egon izan banintz, ez genuke honetaz hitz egingo, seguruenik. Izan ere, mundu honek kontaktuen-gatik funtzionatzen du, zoritxarrez. Baina tira, azkenean lortu egin dugu jende gehiago erakartzea eta funtzionatzea, modu txarrean bada ere...

Zein zentzutuan? Nik nahi dudana da egokitutako surfa modu profesionalago batean jorratzea eta surfariak benetako kirolariak izatea. Gauzak halamoduz antolatzen dira, eta ez dira ondo egiten. Nik brontzeko hiru domina lortu ditut eta garaipen horiei esker aurten egingo den munduko txapelketarako sailkatuta egon beharko nuke; hala ere, sailkapena Somon (Kantabria) egin zuten, olaturik gabeko egun batean eta ordu erdiko manga bateko lehiaketa batean, eta horren ondorioz ez dut aukerarik izango. Hori ez da batere profesionala.

Hala ere, nazioarteko beste hainbat txapelketatan parte hartuko duzu. Bai, nazioarteko hamahiru txapelketa daude munduan eta horietakoren batera joan nahiko nuke. Nik ez dut inolako laguntzarik jasotzen horietan parte hartzeko, ez dut babeslerik. Hori dela eta, fundazioa sortzearen beste arrazoietako bat da bidaia horiek ordaindu ahal izatea. Izan ere, bidaia

Beldurra

«Ez da existitzen; segurtasun ezaren sentsazioa da, egoera bat kontrolatzen ez denean ematen dena. Adrenalina horretaz balia gaitzen benetan maite duguna alde batera ez uzteko»

Ez nago zoro

«Muturreko kirolak egiten ditut, baina ez nago zoro. Denetarik puskatu dut istripuaren ondoren, baina kontu handiz egiten dut egiten dudana dena; ziur egon behar dut gauzak egiteko»

Gaixo vs super-heroia

«Jendeak gu baloratu behar gaitu eta ez gutxietsi. Hemen gaixotzat hartzen gaituzte, eta beste hainbat lekutan, aldiz, super-heroi moduan hartzen gaituzte. Txipa aldatu behar dugu hemen»

bat egiten dudan bakoitzean aprobetxatu egiten dut egokitutako taulak eta aulkiak promozionatzeko. Eskaera handia dago munduan, baina ez dut dirurik leku guztietara joateko. Iaz Costa Ricara joateko aukera izan nuen; ea aurten beste lekuren batera joaterik dudan.

Izan ere, zure beste helburuetako bat da egokitutako taulak eta aulkiak garapen bidean dauden herrialdeetara hedatzea. Zelan egingo duzu hori? Hewlett-Packard (HP) enpresako ingeniari batekin nago harremanetan nire patentea 3D inpresora baten bitartez egin ahal izateko, kostu baxua, zeren orain arte egindakoek kostu handia dute, 1.000 euro ingurukoa, eta ezinezkoa zaie kopuru horri aurre egitea. Modu horretan egitea lortzen dugunean, egindakoak hainbat herrialdetan oparitzea da asmoa. Hasiera batean Afrikako Senegalen eta Marokon uztea aurreikusita dugu.

Beraz, esan genezake harrera oso ona izan duela zure patenteak munduan. Bai, duda barik. Paddle surfarena egin eta segituan jende asko hasi zen nirekin harremanetan jartzen hura probatzeko. Hala, hori promozionatzeko eta ikusgarritasuna emateko fundazioa sortu nuen. 2015ean Australiara joan nintzen, bertako enpresari batek gonbidatuta, egindakoa herrialde horretako eskoletan promozionatzeko. Hala ere, hainbat arazo burokratiko izan genituen eta ezinezkoa suertatu zitzaigun hori egitea. Costa Rican ere oso interesatuta daude; iaz joan nintzenean ezinezkoa egin zitzaidan aulki bat bertan uztea, ez zegoelako dirurik, baina orain ea 3D inprimatzailearekin egindakoren bat uzteko aukera dugu. Hego Amerika osoan, orokorrean, interes handia dago egokitutako kirola sustatzeko, baita Hawaiin eta Japonian ere.

Zaila da dibertsitate funtzionala duten pertsonen mota horretako kirolak probatzea? Bai, gurpildun aulkian egotea zulo batean egotea bezalakoa da; mundua oinez ibiltzeko dago antolatuta, eta gogo handia izan behar duzu mota honetako kirolak egiteko. Surf eta paddle surf egiteko, esate baterako, hareara bota behar duzu zure burua, eta itsasertzera arte arrastaka ibili. Badago laguntzen zaituen jendea, baina bakarrik zoazenean egin beharreko esfortzua ikaragarria da; nire kasuan, hondartzara joaten naizen bakoitzean ordubeteko aurre-prestaketak egin behar ditut.

Pertsona horien artean kirolak sustatzen ditudanean nire helburua da bultzada bat ematea zulo horretatik irteteko aukerak daudela erakusteko. Mota honetako kirolak egitean euren konfort-gunetik ateratzen dituzu, eta hausnarketa-prozesu bat abiarazten diezu: noraino hel naiteke? Besterik gabe, nork bere burua baloratzea da gakoa; bestalde, errehabilitaziorako lagun-garriak dira kirolak, baita gizarteratzeko ere.

Erronka askori egin behar izan diozu aurre hamar urteotan. Zein izan da horietan handiena? Nik pentsio bat kobratzen dut, nahiko baxua, eta ezinezkoa zait etxe baten alokairu bat ordaintzea. Hala, une honetan esango nuke erronkarik handiena dela gurpildun aulki batekin furgoneta batean bizitzea. Neguan mendian nago, elurra aprobetxatuta eskiatzeko; eta uda kostaldean ematen dut, surf egiteko. Bi urte daramatzat horrela eta orain autokarabana bat hartu dut erosotasun handiagoa izateko; ez da asko aldatzen, baina mentalki gehiago deskantsatzen dut.

Eta kirolari moduan, zeintzuk erronka dituzu gogoan? Egokitutako Joko Olinpikoetan lehiatu nahiko nuke, surfean. 2012ko Londreseko Joko Olinpikoetan parte hartzeko zorian gelditu nintzen, igerian; gerora, Espainiako eski-taldean nengoela horretarako aukerak izan nituen, baina horiekin ehuneko ehunetan konprometitzeko aukerarik ez nuen, taldetik bota ninduten. Hortaz, 2024ko Pariseko Joko Olinpikoetan Soorts-Hossegoren surfean aritzea izugarria izango litzateke. Aurten Tokioko Joko Olinpikoetan sartuko da surfa lehenengo aldiz; hortaz, hurrengo deialdian agertuko da paralinpikoen kategorian, eta horretan parte hartzea izango da nire erronka. ◀

Hirigintza Kurkudi mendiko proiektua

Komentuaren ingurua ez ukitzeko

Leioako Kurkudi menditxoari babes bereziko izendapena eman zion 2001ean onartutako HAPOak, eta bertan eraikitzea galarazi (gaur egun komentu huts bat dago inguruan); orain gutxi, ordea, kalifikazioa aldatzeko lehenengo pausoa eman du Udalak, eta aurkako mugimendu bizia sortu da.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

Joan den urriaren 31ko osoko bilkuran onartu zen Leioako HAPOak aldaketa egitea, domingotarrena izandako komentua dagoen Kurkudi muinoko eremua birkalifikatzeko. Hala, horko lurak urbanizaezin eta babes berezikoak izateari utziko diote, etorkizunean kiroldegi bat egiteko. Horri erantzunez, hainbat elkarteek SOS Kurkudi! plataforma osatu zuten, Udalak proiektua bertan behera utz dezala eskatzeko.

San Bartolome eta Artatzagane auzo-elkarteek eta Auzotarrok Kultur Elkarateak bultzatu dute plataforma, eta besteak beste sinadura-bilketa abiarazi dute change.org webgunean. Hau idazteko momentuan ia 2.000 lagunek eman dute izenpea (beste batzuek, 1.000tik gora, paperean egin dute).

Auzotarrok elkarteak Alberto Santo Tomasen berbetan, «komentua abandonatuta dago duela hamalau urte bertan gertzen ziren domingotarren azken mojak Salamancara joan zirenez geroztik, eta sustatzaile batek Udalarari proposatu dio kirol-instalazio pribatu bat egitea hor; horretarako babesak kenduko diote 47.474 metro koadroko eremu bati, eta hori da guretzat arazorik larriena». Santo Tomasek aipatutako enpresa sustatzailea, zehazki, Atutxa S.L da.

PAISAIARI KALTE. SOS Kurkudi!-ren ustez, hainbat inpaktu negatibo izango ditu Udalaren egitasmoak. Batetik, «mendi-magala suntsituko dute, malda naturala eta landaredia kenduta, eta hormigoiari emango diote lekua, oraingoa baino bizpahiru bider gehiago».

Paisaia eta bertako espezieengan eragin kaltegarria izango du horrek, Alberto Santo Tomasek dioenez, eta bestetik trafikoa zaildu egingo dela ere uste du: «Ez dago garraio publikorik, oso aldapatsua eta zaila da oinez edo bizikletaz joatea, eta bestela ere auto ugari ibiltzen da inguruotan, Artea merkataritza-gunea oso hurbil dago eta».

Proiektuan tenisean jokatzeko bederatzi pista eta padeleako hamabi aurreikusten dira, baita igerileku bat eta areto-futbolera, saskibaloirako eta erabilera ugari jokalekuak ere; komentuaren eraikinean, berriz, gimnasio bat eta spa bat egin gura dituzte, ostalaritza-instalazioak batera. Behin hasierako izapideak eginda, lanek urtebete inguru iraungo luketela iragarri dute. Sustatzailearen berbetan, proiektuak ingurumen-inpaktuaren azterketa izango du eta onartuko den erabilera bakarra kirol-erabilera izango da; horren arabera, beren-beregi debekatuko da etxebizitzak eraikitzea. Prezioak ez liratekeela oso handiak ere adierazi dute, inguruan dauden beste instalazio «elitistago» batzuetan ez bezala.

«JUSTIFIKATU GABEKO PROIEKTUA». Abenduaren amaieran eta urtarrilaren hasieran, proiektuari alegazioak aurkeztu zituzten hainbat talde politiko eta sozialek. Horietako batek, EH Bilduk, adierazi du «noizbait Kurkudiren magal osoa urbanizatzeko asmoz birkalifikatu dela eremua». Oro har, alegazioak eman dituztenen ustez «ezek ez du justifikatzen» Kurkudiko



2.000

lagun inguruk sinatu dute
daborduko change.org webgunean
domingotarren komentu zaharra
dagoen eremuari kalifikazioa
aldatzearen aurka.

47.474

metro koadroko eremua da babes
berezikoa eta urbanizaezina izatetik
urbanizagarri izatera igaroko dena.

inguruaren kalifikazioa aldatzea. SOS Kurkudi! plataforma sortu zuten hiru elkarteek, hain zuzen, argudiatu dute «behin ere ez dela justifikatu aukeratutako kokagunea denik onena ekipamendu berria eraikitzeko». Haien esanetan, hiri-ordenamenduan «hain aldaketa handia» egitearen zergatia azaltzera behartzen du legeak, eta kasu honetan ez da halakorik egin.

Aldaketa handi hori inor konturatu barik egin gura izatea salatu dute elkarteek alegazioetan: «Azken helburua ez da aldatu; zoru ez-urbanizagarria birkalifikatzea, bertan eraikitzea ahalbidetuz, izaera pribatua eta irabazteko asmoa dituen jarduera baterako». Kexu dira Atutxa S.L.-k aurkeztutako proiektuak ez dituela kontuan hartzen ez Leioaren bilakabide logikoa ez eta herritarren beharrianak eta interesak ere.

Gaur egun indarrean dagoen HAPOak (2001ekoa) onartu zenetik ingurua babes bereziko izendatzeko arrazoiak aldatu ez direla uste du EH Bilduk, eta nabarmendu du kiroldegia-
ren proiektua justifikatzeko beharrezkoak liratekeen hainbat txosten (biodibertsitatearen babesaz, paisaiaren gaineko eraginaz...) ez direla egin.

ALDAKETA LEGEAREN BARRUKOA OTE DA? Areago, bai koalizio abertzaleak baita auzotarren elkarteek ere adierazi dute Leioan indarrean dagoen HAPOak berraztertze epea gaindituta dagoela honezkero, eta hori egin arte ezin dela beraren edukia

eskatu dute ehunka leioaztarrek



Orain dela hamalau urte joan ziren domingotarren komentuan geratzen ziren azken mojak Salamancara.

moldatu. «Legeak dio edozein momentutan egin daitezkeela aldaketa puntualak antolamendu-planetan», azaldu du Mari Jose Peleteiro EH Bilduko zinegotziak, «baina jakina denez legeek hainbat interpretazio izan ditzakete, eta kasu honetan EAEko Auzitegi Nagusiak ezarritako jurisprudentziak dio badaudela mugak aldaketa horiek egiteko, eta horietako bat da HAPOa beraztertze epeak gainditu izana».

Honenbestez, kalifikazio-aldaketa ez litzateke egingarria legediaren aldetik. EH Bilduk, gainera, bere alegazioetako batean azpimarratu du egitasmoak are zentzu txikiagoa duela Pinosolon kirol-instalazio berriak egiteko prozedura administratiboa martxan dagoela kontuan hartuta. «Instalazio horiek nahikoa izan beharko lukete Leioako herritarrek kirol-ekipamendu nahikoz gozatzeko, kantitatez zein kalitatez, eta gainera publikoa eta herritar gehienentzat irisgarria».

Gaiaz galdetuta, udal-gobernuko ordezkariak ohartarazi dute ez dutela adierazpen publikorik egingo bertako teknikariek alegazio denak aztertu eta txosten teknikoak amaituta ez duten bitartean.

«ORAIN DELA HOGEI URTE BAINO HOBETO DAGO». Zigor Arteaga leioaztar biologo eta kontserbazioaren eremuko aholkulariak parte hartu du EH Bilduren alegazioak osatzen; zehazki, ingurumenari lotutako argudioak idazten. Gainera, proiektua-

Marihuana komentuan

Iazko irailean, Leioako Udaltzaingoak 22 kilo marihuana topatu zituen Kurkudiko domingotarren komentuan. Landareak sikatzen ari ziren, eta Udalaren arabera, saldu izan balira 28.000 euroko balioa izan zezaketen. SOS Kurkudi! plataformako Alberto Santo Tomasek azaldu duenez, lekua aspalditik abandonatuta egoteak ordena publikoari lotutako hainbat gertakari eragin ditu, marihuanarenaz gain. Zaborra botatzea, eraikinari erasoak... «Udalak hori erabiltzen du proiektuaren aldeko argudio modura», dio Santo Tomasek, «baina gure ustez ez da aitzakia nahikoa ia 50.000 metro koadroren kalifikazioa aldatzeko».

ren gainera berbaldia eman zuen abenduan, SOS Kurkudi! osatzen duten taldeek gonbidatuta. «Lurzoru hori babes bereziko eremu urbanizaezin modura kalifikatu zen HAPOan, hainbat balio dituelako naturaren eta paisaiaren aldetik», azaldu digu, «eta balio horiek mantendu egin dira, beraz ulertezina da bes-telako kalifikazio bat ematea inguruari». Izan ere, ia hogeitaz eremua babestuta egin izanak mesede egin du: «Orain hobeto dago faunaren eta landarediaren hainbat alderdiri dagokionez», dio Artegak.

Eraiki gura den kiroldegia belardian egongo da, eta honenbestez, proiektuak ez ei du ukituko aldamenen dagoen harizti txikia («nahiz eta ez dagoen argi hor zer egiteko asmoa dagoen»), baina biologoaren berbetan uste baino harreman estuagoa dago habitat-mota bien artean: «Basoko espezie batzuek, zapelatzak adibidez, belardira jotzen dute elikatzerat, baina belardia desagertuz gero beste leku batera joan beharko dute». Ez dago alde egiteko hainbeste aukera, ordea, «ingurua oso urbanizatuta baitago». Kurkudiko proiektuaren inpaktua izugarri handia izan gabe ere, herriko ondare naturala desagertzeko beste pauso bat dela dio Arteagak, penatuta. Edozelan, ingurumenaren aldetik izango diren ondorioak ez direla behar bezala aztertu gaineratu du: «Udalak eskatu zuen inpaktu-ebaluazioa ez da behar bezain sakona, ez du zehazten horko espezieei zelan eragingo zaien». ◀

Musikariak **Labana**

«Peretek esaten zuen moduan, Hexen ez da hil»

TESTUA: **ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO** ARGAZKIAK: **@TXOKI_TXOUK** ▶

Akelarreetatik denbora batez aldendu den laukotea sor-
gin bat bidean galdu eta harategi-lanetan sartu da
oraingoan. Edabe magikoekin bezain ondo moldatzen
dira hauek harategiko tresneria berriarekin, beraz,
kontuz esaten dituzuenekin... labanak zorrozuta datoz eta!

Hexen proiektua denbora batez aparkatu duzue eta proiektu berri honi ekin diozue. Zer dela eta? Azken finean berdinak zarete, baina bost kide izatetik lau izatera pasatuta. Zein izan da berrikuntza horren arrazoia? Batez ere Hexenen bost neska garela. Talde batzuetan, pertsonak aldatu arren, izen berdina mantentzen dute, eta ez dugu erabaki horien zilegitasunaren gaineko eztabaidan sartu nahi, baina guretzat beharrezkoa zen izen-aldaketa bat, arrazoi horrexegatik. Gainera, taldean aldaketa gehiago egon dira: Ainhoak eta Merik rol-trukaketa egin dute eta soinu ezberdina sortzen ari da musikaren aldetik... Hala ere, Peretek esaten zuen moduan: «Hexen ez da hil»; era berean, gure ordutegiek eta egutegiek laguntzen digutenean, koordinatuko gara hain hutsune handia utzi digun bosgarren lagunarekin!

Oraingoan, taldearen izena Labana da. Zer dela eta? Talde-kide batzuk Habanara eskapatu ginen egun batzuk bertan pasatzeko. Ideia hori domeka eguzkitsu baten sortu zen, Habanako La Rosa Negrán ze ondo egongo ginatekeen imajinatzen genuen bitartean, kar kar. Ostean, lagun batek (L., *te jodes*) Labana Death deitzea proposatu zigun, Habanako abenturaren etorkizuna asmatu nahian edo... Azkenean Labana izenarekin



Labana taldea EP berria, bideoklipa eta kontzertu andana

Martxo-apirila bitartean hasiko dira kontzertuak ematen eta EPa aurkeztzen. Bestalde, proiektu horrekin ere atzerrira irtetea espero dute. «Gazteak gara eta bizitzaz gozatzeko gogoekin gabiltza! Eta nobedade gisa, esan dezakegu jadanik grabatuta dagoela gure lehenengo bideoklipa! Adi pantailei!».

geratu ginen euskararekin zuen loturagatik eta izenaren esanahiagatik. Alde batetik, emakumeon sukaldeko tresna izan da betidanik; baina, bestetik, oso erreminta zorrotza eta arriskutsua ere bada.

Sare sozialetan ikusi dudanagatik erabateko estilo-aldaketa dakarzue zuzenekoetan. Nondik dator aldaketa eta nori bururatu zitzaion? Lehen esan bezala, Hexenetik ezberdintzeko beharra geneukan, eta hori ere estiloan nabaritu da. Gainera, gutako batzuek estilo edo estetika propio bat bilatzen genuen. Horretarako, neonak eta koloreak bilatu ditugu. Izan ere, gutako batzuei Argentoren pelikulen kutsu koloretsu hori asko gustatzen zaigu, eta suposatzen dut Runaways taldearen *Neon Angels on the road to ruin* abestiak ere markatu gaituela.

Aurreko taldeko lau kide izanda, zer topako dugu zuen lan berrian? Estilo bera ala aldaketak datoz? Lau kantako EP bat izango da, Urtzirekin (Urtzi Iza Studios) grabatuta. Oraingoan Pergoiren (Pergoi Lab) laguntza ere izan dugu diseinurako, eta EPa Common People Recordsen eskutik kaleratuko dugu. Abestiak entzun dituztenen arabera, oso kañeroak dira, eta rockeroagoak. Ingelesezt kantatzen jarraituko dugu oraingoan ere, gure abeslariak noizbait euskaraz abestuko duelako esperantza mantenduz, kar kar kar.

Taula gainean urteak eramanda... zer esango zenukete ikasi duzuela? Abentura eta zorigaitzo asko bizi izan ditugu, eta guztietatik zeozer ikasten da, batez ere denbora pasata horiek gogoratuz barre egiten, kar kar. Espero dugu noizbait Hexenen abenturen liburuxka bat publikatzea.

Hezkuntza

hiruka
Gehigarri berezia

155. zenbakia
2020ko urtarrila

Geroaren bideak ondo aukeratzeko

Uribe Kostako gurasoek eta tutoreek eskura dute ikastetxe-eskaintza zabala, etxeko gazteenek kalitatezko hezkuntzaz goza dezaten.



«Ikaskuntza ekintzan eta plaze



Eusko Jaurlaritzaren ohiko hezkuntza-sisteman homologatuta dagoen arren, antolaketa eta eredu pedagogiko berezia darabiltzate Landabaso eskola aktiboan. Denera 3 eta 12 urte arteko 60 ikasle daude, sei bidelagun alboan dituztela.

Enkarterriko Zalla udalerrian dagoen Landabaso eskola aktiboak laugarren ikasturtea hasi du aurten, jolasean eta mugimendu librean oinarrituta. Bertan ez dago irakaslerik; horren ordez, umeen interesetan eta ikaskuntza-prozesuetan laguntzeko bidelagunak daude. Adrian García algotarra da euretako bat eta horrek azaldu digu zeintzuk diren eskola berezi horren oinarriak.

Herriko eskola txikien antza du alderdi askotan eta eskola unitario eredua planteatzen du.

Zer da Landabaso eskola aktiboa? Umeak euren gaitasunak gara dezaketen eskola bat da, betiere pertsona bakoitzaren erritmoak eta diferentziak kontutan hartuta. Eurak dira ikaskuntza-prozesuaren protagonistak; ez dago hezkuntza zuzendu bat, ezta kanpoko planifikaziorik ere. Azken finean, eremu bat da non ume bakoitzak esploratu ahal duen, jolasean, norberaren interesetatik abiatuta.

Nondik dator mota horretako eskola bat garatzearen ideia? Neska-mutil bakoitzaren erritmoa, aniztasuna eta singulartasuna errespetatzea dira gure ildo nagusiak. Horri jarraitzen dioten hainbat proiektu dago inguruan, baina Bizkaian ez zegoen horretan oinarritutako eskola aktibo homologaturik. Hala, familia askok berme hori zuen hezkuntza-proiektu bat garatzeko inte-

Ikastolak
HAMILTON Play-School
Enpresak
ENGLISH SATURDAY Play-School

hamilton
IDIOMAS

INGELES
ALEMANIERA
FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingelesa hiru urtetik aurrera
Talde txikiak
Inglaterran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

hiruka Zu zara giltza!

hiruka **hiruka**

pentasa
euskaraz
pentasa
euskaraz
pentasa
euskaraz

THE DON
Gezuraren kulturaren murgilduta

Izan zaitez gure bidaide, izan zaitez HIRUKALagun!
ABENTURA HONETAKO KIDE IZATEKO: administrazioa@hiruka.eus

«Berean oinarrituta dago»

resa zuten, eta ildo hori jarraituta sortu dugu Landabaso. Aurtengoa laugarren ikasturtea da, baina proiektua duela bederatzirte eraikitzen hasi ginen.

Zergatik homologazioaren behar hori? Familientzako eta langileontzako nolabaiteko bermea eta segurtasuna eskaintzen digu horrek. Gu sei kideko langile-kooperatiba gara, hezkuntzaren eta psikologiaren munduan adituak. Begirada berdina gurelako batu ginen, sinisten gurelako halako proiektu homologatu bat sortu ahal izango gurela eta horrek ere eragina izan zeakeelakoan eskola publikoan bertan, baita gizartean oro har ere.

Zelakoa da eskolan darabilzuen metodologia? Hiru baloretan oinarritzen gara: errespetua, konfiantza eta askatasuna. Norberaren buruarekiko, ingurukoarekiko eta ingurunearekiko errespetua lantzen dugu, oinarri moduan. Era berean, uste dugu pertsona denak, umeak izanda ere, konpetenteak direla hasiera-hasieratik eta berez gara ditzaketela mundu honetan bizi ahal izateko gaitasunak, testuinguru jakin batekin elkarrekin-tzan. Horretarako, ume bakoitzak eskumena dauka momentu bakoitzean erabakitzeke zer egin nahi duen edo ez.

Hiru balore horietan oinarritzen gara eta jolasaren bitartez garatzen da dena. Umeek horrela ulertzen dute mundua: jolasean; eta horrela ikasten dute gainera. Euren esploratzeko modurik sakonena da jolasa.

Garrantzi handia ematen diozue norberaren trebetasunak garatzeari. Nola egiten duzue hori? Jolasaren bitartez, kuriositatetik eta jakinminetik abiatuta, gauza asko ikas daitezke, zeharkako moduan, hala nola logika matematikoa, hizkuntzak eta zientziak. Hala ere, 8-9 urtetik aurrerako neska-mutilek proiektu pertsonalak garatu behar dituzte. Horietan, umeek aukeratzen dute zer ikertu nahi duten, eta jada lana ez da horren espontaneo. Euren interesetatik ateratzen da lana, eta helduok laguntzen diegu proiektua egituratzen. Izan ere, gu ez gara irakasleak, baizik eta bidelagunak, euren beharizasetarako bertan izango gaituztenak. Hala, proiektu pertsonal horiei esker umeek gaitasun matematikoak eta linguistikoak finkatzen dituzte, besteak beste.

Bestelako konpetentzia batzuetan ere trebatzeko aukera dute bertan, ezta? Bai, gure oinarri pedagogikoetako bat da norberaren singularitasuna errespetatzea. Edonoren emozioak errespetatzen dira eta edozein momentutan norbait haserretzen edo triste jartzen bada, hori landu eta emozioak kudeatzeko gunea sortuko da. Horri esker, emozionalki oso ume trebeak dira. So-

«Jolasa zeozer eraikigarri bezala ulertzen dugu»

Zeintzuk gai edo ikasgai jorratzen dituzte umeek Landabason? Eskola ikaskuntza-gunetan antolatuta dago eta askotarikoak daude, hala nola adierazpenekoa, hizkuntzetarakoa, kalkulurakoa eta musikarakoa. Era berean, aroztegi eta liburutegi bana dugu, besteak beste. Gune horietan materiala dago, batzuk modu zehatz batean lantzekoak, baina beste asko umeek eurek landu eta sortzekoak. Izan ere, umeak sortzaileak diren heinean, euren bat-batekotasuna baliatzea bilatzen dugu, inork ezer esan gabe lantzeko.

Umeak taldeka banatuta daude? Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (3-6 urte) eta Lehen Hezkuntza osoa (6-12 urte) hartzen ditugu. Adin desberdinetako pertsonen ikaskuntzako umeak eta eremuak partekatzen dituzte, baina ongi bereizita daude Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gune partikularrak.

Zelan banatzen dituzue eskola-orduak? Egun normal batean, umeak 09:15ak aldera etortzen dira eta adin-tartearen arabera, Haur Hezkuntzakoak alde batera doaz eta Lehen Hezkuntzakoak beste batera. Hala, ongi-etorria egin eta 10:00etan lehenengo aktibitateerako umea hasten dute; bidelagunok tailer batzuk eskaintzen ditugu eta eurek aukeratzen dute zein tailerretara joan edo zertan eta norekin jolastu. Hamaiketako eta gero, baita bazkalostean ere, goizeko dinamika errepikatzen da, 14:45ak arte.

zialki ere erlazioetan trebatzeko aukera dute hemen eta ezta-baidarako eta proposamenak egiteko gai izaten dira. Izan ere, proiektuaren partaide zuzenak dira eta euren iritzia kontuan hartzen ditugu.

Naturarekiko harremanari ere garrantzi handia ematen diozue, ezta? Bai, eskolaren kanpoaldean eremu berde handi bat dago eta Cadagua ibaia ondotik pasatzen da. Landabasoko beste oinarrietako bat da umeak modu librean mugi daitezkeela, alde batetik bestera, baina betiere bidelagun baten ikuskaritzan. Hainbat ikerketak erakutsi dute adin-tarte horietan osagai naturalekin harreman handiagoa izanez gero garapen kognitiboa ere handiagoa dela.

Familien parte hartzea garrantzitsua da? Bai, Landabaso hezkuntza-komunitate bat da. Guretzat hezkuntzaren sorburua da familia; hori dela eta, ez dauka zentzurik halako proiektu bat garatzeko sendiak kontuan hartu gabe. Hala, askotariko ekimenak egiten ditugu familiekin. Alde batetik, familien elkar-tea dago euren arteko harreman zuzena arintzeko; era berean, batzorde etan parte hartzen dute gurasoek, hala nola DBHrako proiektua sortzeko, autobus-zerbitzuko eta aisialdirako planak antolatzeko. Bestalde, guk geuk bestelako ekimenak garatzen ditugu, auzolanak eta tailer pedagogikoak, besteak beste. Funtsezkoa da familiak umearen hezkuntzan parte hartzea.

Euskaraz jarduten duzue eskolan? Bidelagunok euskaraz egiten dugu gure artean, une oro. Umei ere euskaraz egiten diegu; hala ere, ez ditugu behartzen euskaraz erantzutera. Hizkuntza modu naturalean ikasten da eta horrekiko erlazioa bat-batean egiten da. Ez dugu inor euskaraz egitera behartzen.

Zalla udalerrian dago Landabaso eskola; zelan egiten du jendeak bertaratzeko? Bizkaia osotik datoz umeak; Bilbo Handitik gehienak, baita Uribe Kostatik ere. Familia batzuk eremuka antolatzen dira txandaka umeak eramateko, baina autobus-zerbitzua ere badago, goizetan eta arratsaldeetan Bilbotik Zallara datorrena, Barakaldoko BECen geldialdia eginda.

Norbaitek matrikula egin gurako balu, zer egin beharko luke? Matrikulazio epean bete-betean gaude, beraz interesa duenak eskolara e-mail bat bidali beharko luke proiektua zuzen-zuzenean ezagutu eta matrikula egin nahi duela esanez. Era berean, eskertuko genuke mezu berdinean aipatzea zein den matrikulatu nahi den umearen jaiotze-urtea, adin-tarte batzuen kopurua beteta dugulako eta itxarote-zerrenda dagoelako.



Errespetua, konfiantza, askatasuna

landabaso
ESKOLA AKTIBOA

landabaso
ESKOLA AKTIBOA

MATRICULA ABIERTA
2020-2021
MATRIKULA EPEA
ZABAIK!

Urtarrilak 24rarte/ Hasta 24 enero
Info: eskolaktiboa@gmail.com
www.landabaso.eus

SAN NIKOLAS IKASTOLA

Areneazpi Kalea, 15. 48991 ALGORTA • 944 305 478 • ikastola@sanikolas.eus • www.sanikolas.eus

Getxo erdiguneko ikastola gara!

San Nikolas Ikastolak etengabe gaurkotzen den sistema pedagogikoa du. Sistema horrek ikaslea du ardatz, eta gurasoak, langileak eta inguruko gizartea integratzen ditu.

Ikastolak konprometu sendoa dauka umearen garapenagaz, eta etengabe sustatzen ditu irakasle, langile eta gurasoentzako formakuntza eta berrikuntza-proiektuak. Oinarriak herrian sendo finkatuta ditu, eta hezkuntza, gizarte-eragintza eta euskal kulturaren erreferente da. Etorkizunari begira, hezkuntza- eta kudeaketa-proiektu berritzailea eskaintzen du, gaurko zein etorkizuneko guraso eta ikasleen beharrak asetz. Herri-ekimenetik sortu den ikastolak herriari eskaintzen dio bere etorkizun-proiektua.

Haur Hezkuntzako ikasle, irakasle eta gurasoak Konfiantzaren Pedagogia proiektuan murgilduta daude, guztion artean gehiago ikasi eta ikusteko. Horrez gain, umeakaz hobeto jokatzeko familia mintegiak egiten ditu. Lehen Hezkuntzako azken urteetako eta DBHko ikasleen heziketaren ardatza EKI proiektua da, euskal curriculumean eta umeen konpetentzien garapenean oinarrituta dagoena.

Proiektuak ZTEAM zientzia eta teknologia biltzen dituen egitasmoa sustatzen du, IKT konpetentzien garapena digitalizatuz. Euskal eremuan sendo, eleaniztasunerako bidea hasi genuen aspaldi. Ikasleek ingelesez ikasten dute, eta badakite hizkuntza horretan komunikatzen, inguru hurbila gaindituz eta mundura zabalduz. Ikastolaren nortasun



Gaurko zein etorkizuneko guraso eta ikasleen beharrak asetu gura ditu San Nikolas ikastolak.

Berrikuntza-proiektuak sustatzen dituzte etengabe.

agirian dauden baloreak dira umeen garapena elkarregaz bizitzea, berdintasunean bizitzea, emozioak ezagutzea, elkarregaz lan egitea, eta autonomia eta sormena sustatzea. Hezkuntza-eskaintza osatzeko, hainbat ekipamendu eta gela izateaz gain, ordutegia osatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte: harrera-gela, ikasketa-gela eta eskolaz kanpoko kirol- eta kultur-jarduerak, besteak beste.

ARTATZA-PINUETA IKASTETXE PUBLIKOA

Artatza, 81. 48940 LEIOA • 944 638 429 • artatzapinueta@gmail.com • www.artatzapinueta.hezkuntza.net

Eskola hurbil, bizi eta integratzailea

Leioako Artatza auzoan dagoen ikastetxe publiko txikia da Artatza-Pinueta. Ikasleen, irakasleen, langileen eta gurasoen arteko harremanak oso estuak dira bertan.

Artatza-Pinueta euskaragaz eta euskal kulturagaz konprometitutako lerro bakarreko ikastetxe familiarra da; Leioan dagoen D ereduko eskola publiko eta euskalduna da, eta hezkuntza-komunitatearen sareko parte da 2004tik. Familien partaidetza bultzatzen du: eskolaren eta ikasleen aita-amen arteko harremanak sendotu gura ditu, eurak ikastetxeko komunitateko partaide senti daitezzen. Urteetan egindako hainbat berrikuntza fisikoren eta metodologikoren ostean (tertulia literarioak, talde elkarerragileak...), Artatza-Pinueta ikastetxearen helburua da ikasleek gaitasun eta trebetasun emozionalak zein kognitiboak garatzen laguntzen dien prestakuntza eskaintzea.

Gaur egungo gizartearen beharretan oinarrituta, eta haren aniztasuna kontuan hartuta, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetu gura dituzte, horretarako giro egokia eta parte-hartzea bultzatuz. Ikastetxe-komunitateko kide denen arteko harreman onak mantentzeko, errespetua eta elkarriketa lantzen jarraitzen du Artatza-Pinueta ikastetxeak.

Hezkuntza-proiektua baloreetan oinarritzen da, ondokoei lehenetasuna emanez: elkarriketa, adostasuna, enpatia, elkarlana, errespetua. Eskola txikia izanda, ikasleek elkarregaz, irakasleakaz, fami-



Ikasleei banakako arreta eskaintzeko aukera ematen du ikastetxe txikia izateak.

Baloreetan, errespetuan eta elkarriketan oinarritzen dira.

liakaz eta beste langileakaz dauzkaten harremanak sendoak eta estuak dira. Modu berean, ikasle bakoitzari atentzioa eskaintzeko aukera ematen dute, denei behar duten arreta emanez, bai arlo akademikoan, baita arlo pertsonalean ere. Bestalde, kutsadura akustikorik gabeko inguru natural batean txertatuta dago, eta eskolan bertan dauden ikuspegiak Bizkaian dagoen paisaiarik ederrenetarikoa dira.

Eleaniztasunaren institutua

Artaza-Romo BHI, A, B eta D eredueta nerabeakaz lan egiten duen institutu publikoa da. Ikasgelak digitalizatuta ditu, eta aukera ugari eskaintzen ditu ohiko eskolez gain.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eredu denak eskaintzen ditu Artaza-Romok; gaztelania hutsekoa, 1. mailan baka-rik. Batxilergoan, aldiz, A eta D ereduak aukera daitezke, Giza eta Gizarte Zientziak, Zientziak eta Teknologia eta Artea modalitateetan. Ohiko eskolez gainera askotariko eskaintzak ditu institutuak, barbarako trukeak Frantzia, Alemanian, Danimarkan eta Italian, eta hizkuntza-ikastaroak (ingelese eta euskara). Hezkuntza bereziko arreta-zerbitzuan eta unibertsitateko tailerretan parte hartzeko aukera dago, baita orientazio- eta psikologia-zerbitzuetan ere. Ikasgela denek arbel interaktiboa, ordenagailua, audio-ekipoa, proiektorea eta Internetarako sarbidea dute. Gainera, bost informatika-gela, musika-gela bi, batxiler artistikorako gela bereziak eta hainbat laborategi daude, fisikan, kimikan, biologian, geologian eta argazkigintzan trebatzeko.

Ikastetxeak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: janlekuaz eta garaioaz gainera, gela itxia erabiltzeko eta psikologoaren zerbitzuak baliatzeko aukera dago, eta posta elektronikoa bana eskaintzen zaio familia eta ikasle bakoitzari. Hamaika proiektu dituzte esku artean: Eleaniztasuna, STEAM, Curriculum Dibertsifikazioa, Bidelaguna, sa-



Ikasgela denak teknologia berrietara egokituta daude.

re-hezkuntza, Agenda 21, PREE, hezkidetza-elkarbizitza, Bizikasi, elkartrukeak eta normalizazioa, Erasmus+ (K2), Forensic Science...

12-18 urteko neska-mutilek jardura osagarriez goza dezakete: euskara praktikatzeko barnetegietan egonaldiak, museo eta erakusketetara bisitak, ibilbide ekologikoak, musika klasikoko kontzertuetara, unibertsitatearen jardueretara eta antzezlanetara irteerak... Urtean behin Getxo Arte egitasmoan jarduteko aukera ere badute ikasleek.

Etorkizunerako prestakuntza

Sopelako Ander Deuna Ikastola gurasoen eta langileen herri-onura izaera duen kooperatiba da, irabazi asmorik gabea, herrikoia eta herriaren ekimenetik sortua.

Aniztasunean oinarritutako hezkuntzaren bitartez pertsona trebeak, osoak eta zorionsuak garatzea da Ander Deuna ikastolaren oinarri nagusietako bat. «Gaur egun planteatzen da ikastea bizitza osoko prozesu bat dela», dio Xabier Ugalde zuzendariak; «gure ikastolan dauden bitartean oinarriak hartuko dituzte ikasleek, etorkizunean prest egon daitezen aurrekusi ere egiten ez ditugun aldaketetara egokitzeko». Bide horretan aurrera egiteko, talde-lana, elkarriketa, tolerantzia eta elkartasuna lantzen dituzte. «Ikasleengan pentsamendu independentea eta kritikoa garatzea daukagu helburu».

Euskal kulturen, naturaren eta herriaren errotutako komunitatea sortzea dute helburu, berdintasunean, askatasunean eta bizikidetzaren balioetan oinarrituta. Betidanik, auzolanaren filosofiak garrantzi handia izan du Ander Deunan, eta kultura horrek bizirik segitzen du oraindino. Naturarekiko loturari eusteko izugarri laguntzen die, zer esanik ez, ikastetxea herri-gunetik apur bat aldentuta eta mendi-magal batean egoteak. Gainera, instalazioak etengabe berritzen dituzte, Ugalderen esanetan: «Espazioak eta zerbitzuak gaur egungo beharretara egokitzea garrantzizkoa da guretzat».



Ander Deunaren 50. urteurrena zela eta iaz egindako mendi-irteera. Atzeko aldean ikus daiteke ikastola.

Pertsona trebe, oso eta zorionsuak garatzea da euren oinarrietako bat.

Hizkuntzei dagokienez, euskara da ardatz nagusia, baina atzerriko hizkuntzei gaurko gizartean duten garrantziaren neurriko protagonismoa ematea ere badute lan-ildo.

Azkenik, «kooperatiba osatzen dugun erabiltzaile, langile eta komunitate osoaren arteko bi bideko komunikazioa» aipatu du Ugaldek Ander Deunako oinarrien artean.

Curriculumaren bilakabidea: e



Gizartea aldatu egin da, eta gaur egungo eskola-curriculumak oso bestelako erronkei egin behar die aurre, orain dela urte batzuetakoagaz konparatuta. Jakintza hutsa baino, ikaslearen konpetentziak garatzea da orain helburua.

UNAI BREA ►

Orain dela zenbait urtera arte, arlo bakoitzean eduki asko ezagutzean zetzan curriculumak. Bestela esanda, datu asko. «Pilo bat eduki, bete ezinezko kopuru erraldoia», dio Xabier Ugalde Ander Deuna ikastolako zuzendariak. Ikasturteak irauten zuen denboran horiek denak ikasgelan azaltzea, horixe izaten zen irakasleen buruhausterik handienetakoa. «Ondoren, eduki horiek ondo memorizatu ziren neurtzeko proba eta azterketak egiten ziren». Egiten ziren eta oraindino egiten dira, gaineratu dezagun, baina Ugalderen esanetan aspaldi honetan «egitetik egiten jakitera eman da jauzia».

Konpetentziak, horixe da orain berba magikoa hezkuntzan. Curriculumarek bilakabideaz berba egiteko, Sopolako Zipiriñe

Jasotako ezagutzak euren esperientziakaz uztartu eta ezagutza berriak osatzeko eskatzen zaie gaur egun ikasleei.

eskolan elkartu gara bertako zuzendari Aritza Zalduondogaz, hamahirtu urtez ikasketa-buru izandako Iñaki Zunzunegigaz, eta handik hurbil dagoen Iberre institutuko zuzendariagaz, Jose Luis Ruizegaz, alegia. Ruizek heldu dio gaiari lehenik: «Orain, nahi eta ez, ebaluazioa konpetentzien arabera egin beharra dago, eta ez edukien arabera. Lehen, edukiak eta kito».

Konpetentziak zeintzuk izan behar duten Eusko Jaurlaritzaren Heziberri Planak zehazten du 2015etik, eta Ruizen esanetan modu horretan ebaluazioa egitea kostatu egiten zaie irakasle batzuei. «Diziplinen arteko harramana ondo landu behar dugu, proiektuen arabera lan egin, eta horretarako, beste irakasleekin adostu gauzak zelan irakatsi». Iberreko zuzendariak dio, eta bat datoz beraren mahaikide biak, gaur egun fakultatetik irten berritan irakasle hasten diren gazteei igarri egiten zaiela lan-molde horien araberrako trebakuntza jaso dutela.

IKASLEAK PROTAGONISTA. Konpetentziak erdigunean ipinita, ikasleek hartzen dute protagonismoa curriculumaren diseinuan, Ander Deunako Xabier Ugalderen berbetan. Ikasleek jakin behar dute zer dakiten, eta zer dakiten egiten; benetako egoerari eta benetako inguruko arazoei buruzko hausnarketa egin behar dute; zein egoerari aurre egin behar dioten ezagutu; erabakiak hartu eta horien ondorioz ekin... Gauzak ezagutzea ez da nahikoa».

Jasotako ezagutzak norberak dituen esperientziakaz uztartu eta ezagutza berriak osatzeko eskatzen zaie ikasleei gaur egun. «Eta zentzu horretan, ematen den arlo-kopuru izugarria, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, beste modu batez antolatu beharko litzateke», uste du Ugaldek, «modu globalagoan hartu behar dira arloak, eta globaltasunean landu».

Beste aldaketa bat talde-lanari ematen zaion garrantzia da. Testuinguru horretan, ebaluatzeke modua oso bestelakoa da, orain hamarkada batzuk zegoenagaz alderatuz gero. «Ebaluazioak garrantzi berezia hartzen du, nota ipintzea baino gehiago da», dio Ugaldek. Ikastolei dagokienez, orain urte batzuetatik hona euren sortutako Euskal Curriculumean, Curriculum Konpetentzialean eta Curriculum Inklusiboan oinarritutako materialak diseinatu eta argitaratzen dabiltzala gaineratu du Ander Deunako zuzendariak. «Horrek nahikoa erraztu du prozesua, baina batzuetan zaila suertatzen zaigu “betikotik” ateratzea», aitortu du.

Legeak, berez, ikasturtero ebaluazio bi egitera behartzen duela gogorarazi du Iberre institutuko Jose Luis Ruizek, baina gehitu du edozein kasutan ebaluazioa etengabe egitea dela orain arruntena. Betiko «notak» ez dira desagertu, ordea. Aldiro, gurasoei jakinarazten zaizkie etengabeko ebaluazio horren tarteko emaitzak, «informatzeko eta aldatu beharrekoa aldatzeko», Ruizen berbetan.

Konpetentzia zer den, berriz, modu honetan azaldu du: «Ikasitakoa azaltzeko eta erabiltzeko gai izatea da konpetentzia edukitzea, bestela memoria-ariketa hutsa da. Ikasitakoa aplikatzen jakin eta informazioa bilatzen jakin beharra dago; irizpide horien arabera ebaluazioa egiteak aldagetak dakartzkio gure lanari, noski».

POLITIKAREN HAIZEAREN MENPEKO ALDAKETAK. Sarritan aipatzen da Espainiako Estatuan agente politikoa aldatzeagaz batera hezkuntza-arloko legedian egin ohi diren gehiegizko aldagetek eragindako kaltea. Horretaz kexu da Aritza Zalduondo ere: «Agintarien menpe gaude beti, hezkuntzan ez dago denen artean adostutako ildo bat, gutxi gorabehera denen iritzia bateratzen duena eta eskolan zer landu behar den esaten duena». Zalduondok gura luke landu beharreko hori mugiezi- na izatea, baldin eta gizarte osoak kontsentsuz erabakitzen ez badu zerbait aldatu beharra dagoela. «Hala, askotan benetan

gitetik, egiten jakitera

garrantzitsuak diren gaiak ez dira jorratzen; alderdi bat dago agintean eta bere gustuko gauzak bultzatzen ditu, beste alderdi bat etorri eta horiek kendu arte». Ildo beretik, Jose Luis Ruizi gustatuko litzaioke alderdi politikoen arteko paktu bat egitea hezkuntzaren alorrean. «Gaur egun, aldiz, elkarren aurkako arma modura erabiltzen dute», dio.

Horrek curriculumean eragiten dituen aldaketak «fun-tsean» hain handiak ez direla uste du Iñaki Zunzunegik, baina kexatzen da aldiro lan-molde berria ezartzeak irakasleei sortzen dien nahasmenaz: «Gobernu bakoitzak bere ukitua eman nahi dio hezkuntzari; edukiak berdintsuak dira, baina lehen A esaten zitzaionari orain B esan behar zaio, eta horrek energia eta denbora galtzea dakarkigu irakasleoi», azaldu du. «Terminologia berria, material berria... azken batean gutxi gorabehera leku berera ailegatzeko».

HEZKUNTZA SMARTPHONEEN AROAN. Gizarte osoaren onespenaz hezkuntzan egindako aldaketez jardun du Aritza Zalduondok. Azken urteetan, zalantzarik gabe, teknologia berri esaten zaion horien erabateko zabalkundearen ondoriozkoak izan dira garrantzitsuenak. «Hori bai benetako aldaketa», nabarmendu du Iñaki Zunzunegik, «hortik datozen prozesu guztiak ikasi beharrekoak dira; teknologia, informatika... Planteamenduen akatsa da, nire ustez, lehenengo proiektua datorrela eta atzetik baliabideak. Irakasleei proiektua ezartzen zaie eta hasieran ez dakite nondik nora jo, edo badakite baina ez dute baliabide nahikorik, eta sarritan eurek sortu behar izaten dituzte baliabideak, edo eskatu eta berandu etortzen dira. Horrek

Matrikulatzeko pausoak

Urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra arte iraungo du EAEn Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako 2020-21 ikasturterako matrikulazioaren onarpen-faseak (internet bidez eginez gero, otsailaren 6ra artekoa da epea). Onartutako behin-behineko zerrenda martxoaren 17an argitaratuko da. Informazio osoa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren webgunean ikus daiteke.



presioa sortzen du».

Konpetenteak izateko ikasleek euren ezagutzak euren kabuz osatzeko gaitasuna izan beharra aipatu dugu. Argi dago interneten aroan informaziorik ez zaiela faltako, baina horrek zer ondorio ekartzen du irakasleen lanari dagokionez? «Garai batean irakasleok ginen informazioaren iturria, ia bakarra; *maisuak* ginen», azaldu du Jose Luis Ruizek. «Baina hori aldatu egin da, orain informazio asko dago, eta guk horren bideratzailerak izan behar dugu, ikasleei etengabe heldzen zaion informazio hori guztia iragazi eta erabiltzen irakatsi behar diegu».

ANIZTASUNAREN KUDEAKETA. Ikasle-taldearen ezaugarria gero eta nabarmenagoa aniztasuna dela azpimarratu du Ruizek. Erakundeetatik hezkuntzarako egiten diren inbertsioetako askok aniztasun horretara behar bezala egokitzea dute helburu, haren esanetan. «Aldaketa handiak egin dira, irakasleek egotera horri erantzun ahal izateko».

Ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitu eta taldetik bereizi gabe banakako beharrak asetzeko hainbat programa daudela adierazi du Ruizek; «uste dut gure hezkuntza-sistemak bermatu egiten duela inor atzean ez geratzea, denei ematen zaizkie aukerak bide batetik edo bestetik». Filosofia hori 2013an Espainiako Gobernuak, PPren eskutik, indarrean ipinitako LOMCE Legeagaz (Wert Legea, lagunartean) konparatu dute Iberreko eta Zipiriñeko zuzendariak: «Hura oso elitista zen». Besteak beste, ikasle *trebeak* eta *baldarrak* elkarrengandik goizegi bereiztea leporatu diote lege hari.

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

5 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK
CURSOS INTENSIVOS DE 5 HORAS

MAILA GUZTIAK: A1-A2-B1-B2-C1

OTSAILAREN 17tik EKAINAREN 26ra arte (400 eskola-ordu)
Del 17 de febrero al 26 de junio (400 horas lectivas)

Otsailaren 12ra arte matrikula zabalik Matrícula abierta hasta el 12 de febrero

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)

Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu



Getxo
bizi eratz



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi eratz

BETIKO IKASTOLA

Artatza auzoa, 84. 48940 LEIOA • 944 642 364 • info@betikoikastola.eus • www.betikoikastola.eus

Leioako ikastola herritarra

Euskal Herriko Ikastolak Kooperatiba Europarreko kidea da Betiko. Euskarazko hezkuntzan aitzindariak izanik, euren ikasmaterial propioa sortzen dute.

Euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, askotariko jatorri, trebetasun, eleaniztasun eta inteligentzia-motak kontuan hartzen dituen eta pedagogia-eredu aurreratuenei jarraitzen dien hezkuntza-eredu inklusiboa da Betikorena. Konfiantzaren pedagogia erabiltzen dute HH eta LHko ikasleak. Argi dute ume bakoitzak bere barruan duela pertsona modura garatzeko eta zoriontsu izateko ahalmena. Horregatik, berezkoak dituzten gaitasunak garatzeko, maitatuak sentitzeko, Betikok eremu euskaldun, zabal, seguru eta aberats baten alde egiten du, autonomia eta interakzioa bultzatzen dituena. Umeek zailtasunak kudeatu eta euren gaitasun guztiak garatzeko konfiantza behar dute. «Ikastetxearen ardura da familiekin batera konfiantza hori eraikitzen laguntzea, eginez eta gozatuz ikastera gonbidatzen duena».

Bestalde, EKI proiektua dute LH eta DBHko ikasleentzat. Euskal curriculumari jarraituz, proiektu hori gaitasunetan oinarritzen da, eta bizitzarako ezinbestekoak bezain baliagarriak diren diziplinarteko konpetentzia orokorrak zehazten ditu.

Gatazkak kudeatzeko KIVA proiektua darabilte. «Gatazketan emozioak eta sentimenduak azaleratzen dira eta horren alde onak apro-



Espazio euskaldun, zabal, seguru eta aberats baten alde egiten du Betiko ikastolak.

Umeei konfiantza ematen diete, pertsona modura gara daitezen.

betxatu behar ditugu», diote, «hau da, gatazka bizikidetzat hobetzeko aukeratzat hartzen dugu».

Jantokiko menua bertokoa, sasoikoa eta ikastolan prestatutakoa da, produktu ekologikoakaz aberastutakoa, 0 kilometro filosofiari jarraituz eta zuzenean ekoizleei erosita. Hala, elikadura-burujabetzarako pausoak emanez menu osasungarri eta goxoa eskaintzen dute.

JADO IKASTETXEA

Tartanga, 13 eta Jado, 21. 48950 ERANDIO • 944 672 558 • idezkaritza@jadoikastetxea.com • www.jadoikastetxea.com

Ikastetxe berritzailea

Heziketa-eredu berritzaile baten alde, azken berrikuntzak eta proposamenak aztertzen ditu Jadok XXI. menderako beharrezkoa den proiektu pedagogikoa osatzeko.

Erandioko hainbat belaunaldik ikasi dute Jado Ikastetxean 80 urtean zehar. Ibilbide luze horretan eskuratutako esperientziari esker landutako proiektu pedagogikoak XXI. menderako behar-beharrezkoak izango diren baliabideak eta gaitasunak lortuko dituzte ikasleek, ikaskuntza-prozesuaren protagonista bilakatuta, eta giro hurbila eta familiarra sortuta.

Hezitzaile parte-hartzaile eta berritzaileak dabilta bertan lanean, etengabeko formakuntza eta talde-lana sustatuz. Jado Ikastetxeak erabat barneratuta dauka metodologia eta baliabide berriak guztiz beharrezkoak direla gizartearen bilakaera geldiezin honetara egokitzeko. Hala, ikastetxearen Hezkuntza Proiektua etapa bakoitzeko beharrak kontuan hartuz diseinatu da. Estimulazio goiztiarra eta tailer esperimentalak lantzen dituzte Haur Eskolan (1-2 urte), eta proiektuen bidezko ikasketa garatzeko prozesuan buru-belarri dabilta Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Horrez gainera, ikasleen arteko lan kooperatiboaren prozesuan dihardute, esperientziak eta ezagutzak elkar trukatzeko guztiz garrantzitsutzat jotzen baitu Jado Ikastetxeak. Era berean, bisita pedagogikoak egiten eta jasotzen dituzte, E-twinning eta Erasmus+ programetan parte hartuta.



Jadok eleaniztasuna du helburu, D eredua abiapuntu izanda.

Jadon, ikasleak dira ikaskuntza-prozesuaren protagonistak.

Teknologia berrien erabilera ohikoa da ikasgeletan eta sare hezkuntza 1x1 eta robotika eta programazioari ekin diote aurren ere HHn, LHn eta DBHn. Hizkuntzari dagokionez, Jadok eleaniztasuna du helburu, D eredua abiapuntu izanda. Horretarako, euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekimenen antolakuntzan parte hartzen du ikastetxeak.

Natxo Basañez Bilbao CrossFit-ean aditua

«Norberaren gaitasunetara egokitzea da garrantzitsuen»

Intentsitate handian, askotariko ariketa funtzioaletan oinarrituriko entrenamendua da CrossFit-a. Sistema berria den arren, apurka-apurka jarraitzaile asko lortu ditu denbora gutxian, baita Uribe Kostan ere. Zein da arrakasta horren arrazoia? Natxo Basañez entrenatzaileak gakoak eman dizkigu.

IKER RINCON MORENO ►

Ingeniaritza-lanak alde batera utzi ondoren, CrossFit-aren mundua ogibide bilakatzea erabaki zuen orain dela lau urte Natxo Basañez gazte itzubaltzetarrak. Kirol hori aspaldian ezagutzen zuen, triatlouetarako eta bestelako kirolerako prestakuntza fisikorako baliatzen baitzuen. «Denbora gutxian horren mendean erori nintzen, eta horrekin zer edo zer egitea otu zitzaidan, formatu eta titulazioak lortzen hasi nintzen», azaldu du.

Hasteko, modu laburrean, azaldu zer den CrossFit-a. Norberaren ahalmen fisiko denak ahalik eta osatuen egoteko entrenamendu sistema bat da. Hau da, horren bitartez ez gara ezertan espezializatuko, hala nola indarrean, erresistentzian edo malgutasunean; baina arlo horiek denak lantzen ditugu, moduren batean edo bestean. Hainbat modalitatetako ariketak konbinatzen ditugu: indarrerakoak, gimnastikoak eta aerobikoak, besteak beste.

Denon ahotan dabilen entrenamendua da; zer dela eta moda hori? Uste dut eragile asko daudela arrakasta horren atzean. Alde batetik, entrenatzen hasi eta gutxira jendeak hobekuntza fisikoak nabaritzen ditu; hilabete batean jendeak aurrera egiten du, lehen ezinezkoak zitzaizkion gauzak egiteko gai da. Bestetik, komunitate handia sortzen da hemen; klaseak gehienez hamasei pertsonakoak izaten dira, eta laster sortzen da giro polita. Hemen kuadrilla asko sortu da, baita bikoteak ere. Azkenik, al daketa fisikoa dago; jendeak hobeto ikusten du bere burua lortutakoarekin, eta horrek erakarri egiten du, pilo bat gainera.

CrossFit-a erregistratutako marka bat izan arren, hori eskaintzen duten askotariko gimnasioak agertu dira azkenaldian. Zein da horren egia eta gezurra? Denetarik dago. Gure kasuan markari ordaintzen diogu eta ofizialki CrossFit deitu diezaiokegu egiten dugunari, hasieratik egin duguna da eta horrela ikasi dugu. Hala ere, badago ordaintzen ez duen edo beste izen bat erabiltzen duen jendea. Askok moda horretaz baliatu dira dirua egiteko eta CrossFit-a beharrean beste edozer gauza eskaintzen dute; baina badago izena erabili ez baina oso entrenamendu onak ematen dituztenak, CrossFit purua dena. Benetan garrantzitsuen da entrenatzailea ariketak norberaren ahalmenetara egokitzeko gai izatea, edozein mailatan.

Nork bidera dezake mota horretako entrenamendu bat? Asteburu bateko ikastaro bat egitearekin (*Level 1*) nahikoa litzateke legalki klaseak emateko. Hala ere, nik ez dut hori ondo ikusten, ez delako gauza berdina legalki gai izatea entrenamendu bat bi-



Ingeniaritza-lanak alde batera utzi eta Red Grizzly gimnasioa sortu zuen itzubaltzetarrak, orain lau urte. HODEI TORRES

Orokortasuna

«CrossFit-ak gaitasun fisikoak orokorrean lantzen ditu; zehaztasuna lortzeko beste kirol batekin konbinatu beharko litzateke»

Kontraindikaziorik?

«Ariketa biziak egiten ditugu; hori dela eta, beharrezkoa ez den arren, gomendatuko nuke bihotza txkeatzea hasi aurretik»

Lesio-tasa txikia

«Kontrakoa uste den arren, lesio-tasa oso txikia da. Entrenatzaileek lesioak ekiditeko egokitzapenak egin behar dituzte, beti»

deratzeko, eta eskaintzen duzuna benetan kalitatezkoa izatea; asteburu batean ikasten duzuna ezin da nahikoa izan.

Nori zuzenduta dago CrossFit-a? Askotan esan da oso gogorrak direla entrenamenduak, indartsua izan behar zarela hori egiteko eta lesio-tasa oso altua dela. Hori dena gezurra da, erabat. Edozein pertsonak egin dezake CrossFit-a, betiere entrenatzaile on baten gidaritzapean; horrek kirolariaren ahalmenetara egokitu behar ditu ariketak. Gorpildun aulki batean dagoen batek ere egin ahal izango luke, den-dena egokituta.

Eta zein izan ohi da CrossFit-a egiten duen jendearen profila? Askotarikoa; orokorrean 25-40 urte artekoak dira, kirolariak edo oraintsu hau probatzera animatu direnak. Hala ere, denetarik dago, 77 urteko gizon bat dago gurean, hasiera-hasieratik gurekin entrenatzen hasi zena, duela lau urte, eta gauza asko egiteko gai da. Emakume eta gizonen arteko aldeari dagokionez, hasiera batean gizon gehiago zegoen, baina orain, apurka-apurka, parekatzen hasi da kopurua. Nik uste dut duela lau urtetik hona aldaketa handia egon dela edertasunaren kanonean; lehen argaltasuna bilatzen zen, eta orain osasuna gailentzen da, muskuluen tonu on batekin indartsu egotea, hain zuzen ere.

Entrenamenduez gainera, proba eta txapelketa asko egiten dira orain, ezta? Bai, markak berak txapelketa ofizialak antolatzen ditu urtero, CrossFit Games delakoak. Horieta heltzeko hainbat jardunaldi ere egiten dira, hala nola Open izenekoak; iazkoetan bigarren sailkatu ginen estatu-mailan. ◀

Inhar Ugarte Pilotaria

«Zaila izango dugu Iparraldeko pr

Iparraldeko lehenengo mailako ligako txapela jantzi zuen Inhar Ugarte getxoztarrak joan den abenduaren 15ean, Ekhi Ziarrusta bikotekideagaz batera. Ordutik, gelditu barik ibili da bikote bizkaitarra, ibilbide gorabeheratsua egin behar izan duten arren, garaipenak eta porrotak bidelagun. Ugartegaz lotu gara bere sorterrian, Algortan, hamarkada bitan pilota eta frontoi artean egindako ibilbide oparoari errepaso arina egiteko.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAKIA: HODEI TORRES ►

Garaipen horregaz, duela urte bi abiatutako bideari amaiera eman dio Ugartek; izan ere, hirugarren mailatik abiatuta, lehenengo mailako txapelketa irabazi du getxoztarrak, Ekhi Ziarrustagaz batera, Endaia-rrak taldearen eskutik. Trinketa eskupilotaren izarra da Ipar Euskal Herrian, eta ez da ohikoa izan Hegoaldeko kirolariak horretan gailentzea, bikote bizkaitar hau bertara heldu arte; «Iparraldeko lehenengo mailako trinket lehiaketa irabazi duten Hego Euskal Herriko lehenengoak izan gara», aipatu zigun abenduan Ugartek.

Ipar Euskal Herriko txapelketa irabazi ondoren, Abadiñoako Gabonetako torneoren txapela jantzi zenuten abenduaren 24an Ekhi Ziarrustak eta zuk. Zer-zelakoa izan zen partida? Gabonetan urtero Abadiñon antolatzen den afizionatuen eta profesionalen arteko txapelketa da hori eta, aurren, Iparraldeko lehiaketaren dinamika eta jokoa aprobetxatuta, erraz irabazi genuen finalaurrekoa. Finala, aldiz, Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketan lehiatu diren Eneko Maiz eta Javier Luquin bikotearen kontra jokatu genuen; partida gogorra izan zen baina 40-28 irabazi genuen.

Ondoren, baina, Frantziako txapelketan ez zarete oso fin ibili, ezta? Ez; Ipar Euskal Herriko txapelketako lehenengo zortziak sailkatzen dira Frantziakora, eta gu, txapeldun gisa, finalaurrekoetara pasa ginen zuzenean. Hala ere, galdu egin genuen Lekorneko gazte biren kontra. Nik ez nuen partidu oso ona egin, ezta Ekhi ere. Hala, publikoaren txistuak entzun ondoren, burumakur bueltatu ginen etxera.

Partidu gogorra izan zen hori? Ipar Euskal Herriko txapelketako lehenengo jardunaldian euren kontra jokatu genuen, trinket berdinean, gainera, Zuraiden. Aldi horretan 40-32 irabazi genuen guk, ordu eta 40 minutuko partida baten ondoren. Nik banekien oso onak zirela eta oso partida gogorra izango zela; hala ere, uste dut nire akatsa oso lasai joatea izan zela, gogogabe eta mentalizatu barik; eta, noski, horrela joanda normala da egurra jasotzea.

Azken aldiko txapelketa denetan trinket modalitatean lehiatu zara; zer gako ditu horrek ezker paretaz alderatuta? Alde batetik, jokalekuaren tamainak; trinketeko frontoiak 30 metroko luzera du eta ezker paretakoak 36 metro. Hala ere, nik esango nuke gakoa pilotan dagoela. Ezker paretakoa askoz ere zorrotzagoa da fisikoki; 6-8 gramo gehiago pisatzen ditu eta beharrezkoa da potentzia gehiago izatea. Trinketekoak, aldiz, arinagoa da, eta abilezia handiagoa behar da, fisikoki azkarra izan behar da eta nik uste dut nire gorputzera eta ezaugarrietara hobeto egokitzen dela.

Bien artean, zein nahiago duzu zuk? Hemen, Hego Euskal He-



BEGIRA MANU AMADO

Iparraldeko txapela jantzen lehenak

Inhar Ugartek dioenez, Iparraldeko jendea orokorrean oso mesfidatia da Hegoaldeko pilotariakaz. «Ez gaituzte serio hartzen edo, baina muturrean ematea lortu dugu; are gehiago, historia egin dugu: Iparraldeko txapelketa hori irabazi duten Hego Euskal Herriko lehenengoak izan gara».

Afizioa

«Iparraldean ohitura handia dago trinketa ikusteko; afizionatuen mailan frontoiak bete egiten dira, sarrera ordainduta ere»



Txikitako gelakideen erruz

rrian, trinketak ez dauka presentzia handirik, Ipar Euskal Herriarekin alderatuta behintzat. Hala, ni, bertokoa naizen heinean, ezker paretan hasi nintzen eta 17 urte nituen arte ez nuen trinketa probatu. Gaur egun, aldiz, gero eta gutxiago jokatzen dut ezker paretan, lau eta erdiko txapelketak jokatzen ditudanean baino ez. Entrenamenduak trinketera begira egingen ditut.

Zelakoa da zure egunerokoa pilotari modura? Askok zorotzat hartzen naute egunero frontoian sartuta nagoelako. Asteazken zehar goizero entrenatzera noa eta arratsaldeetan umeak entrenatzen ditut Sopelako pilota-eskolan; asteburuetan, aldiz, partidu bat edo bi jokatzen ditut.

Nondik datorkizu pilotarekiko maitasun hori? Egia esanda, txikitako gelakideak hasi zirelako animatu nintzen horretara. Gustatu zitzaidan, nahiko ondo jokatzen nuen eta hogeitaz hamar urte igaro dira dagoeneko ordutik.

Pilotarekiko afizio handia dago gaur egun Euskal Herrian? Ipar Euskal Herrian ikaragarria da trinketarekiko afizioa; ohitura handia dago afizionatuen partidetara joateko ere; 200-300 pertsona batu daiteke halakoetan, hamar euroko sarrera ordaindu beharra badago ere. Hemen, Hego Euskal Herrian, al-

«Profesionalen mailara salto egitea»



hasi zen pilotan jokatzeko Ugarte; ezker paretan hasieran, trinketeen beranduago. Hamarkada bi igaro dira lehengo aldiz frontoian lehiatzeari ekin zionetik eta ordutik askotariko garaipenak batu ditu getxoztarrak.

diz, ezker paretako partidek ere interes handia sortzen dute, baina profesionalak baino ez. Afizionatuen mailak ez du horrenbesteko arrakastarik izaten hemen; are gutxiago sarrera ordaindu behar bada.

Euskal Herri osoan askotariko txapelak irabazi dituzun arren, nazioartean ere ibilitakoa zara. Hala ere, Espainia-ko selekzioagaz parte hartzeari uko egin diozu behin baino gehiagotan. Aspalditik hartutako erabakia da hori. 2007an jaso nuen lehenengo deia 22 urtez azpiko Munduko Txapelketan lehiatzeko, eta ezetz esan nuen. Egia esanda, ez zen asko pentsatutako erantzuna izan; bertan aritzen diren pilotari gehienak ezagutzen ditut eta asko nire lagunak dira, baina oso arraroa egin zitzaidan niri, ez nuen nire burua Espainia-ko selekzioaren barruan ikusten. Hala, inguruko jendearekin hitz egin ondoren, erabaki hori hartu nuen. Ondoren, 2012ko eta 2016ko munduko txapelketetan lehiatzeko eskaera egin zidaten eta bietan ezezkoa eman nuen. Ordutik, 2019ra arte ez dut inolako deirik jaso eta iaz berriro ezetz esan nuen. Hasiera-ko erabakia mantendu dut urtez urte; batzuek esango dute zoroa naizela erabaki horrek ez didalako kirolean aurrera egiten utziko; beste batzuek, aldiz, oso ondo egin dudala esango dute. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena, nor bere erabakien jabe da, eta hori da nik egin dudana.

Hurrengo helburua
«Urtarrilaren 27an Donibane Garazin jokatu dugu profesionalen kontra. Lagunartekoa bada ere, onena eman behar dugu»

Espainiako selekzioa
«Espainiarekin jokatzeari uko egitearen erabakia aspaldikoa da. 2007an eskaini zidaten aurrenekoz, eta horrela segituko dut»

Ondorioak izan ditu erabaki horrek zure ibilbidean? Ez dakit. Pilota ez da kirol profesionala; dirua irabazteko aukera handirik ez dago. Hala ere, nik uste dut ate batzuk ixteko arrazoia izan daitekeela hori. Ez dut beste pilotarien meriturik kendu nahi, baina Munduko Txapelketaren batean jokatu duten kirolariek aukera gehiago dute gerora profesionalen mailara salto egiteko. Bai, agian eragina izan dezake kasu puntual batzuetan, baina orokorrean ezetz esango nuke.

Binaka lehiatu zara azkenaldian; zer gurago duzu, banaka edo binaka jardutea? Urtean zehar gehiena bikoteka jokatzeko da; banakakoa asko gustatzen zaidan modalitatea da, eta ondo moldatzen naiz horretan, baina urtean 5-6 partidua baino ez ditut egiten.

Kirolari modura, zeintzuk une nabarmenduko zenituzke? Bikote askorekin jokatu ditut txapelketa asko, eta zorionez txapela asko jantzi ahal izan ditut lagun askorekin. Horiek denak ditut gogoan. Bestalde, Abadiñoko Tornosolo Kopa banaka irabazi nuenekoa ere oso berezia izan zen niretzat; Euskal Herri osoko profesionalen kontra irabazitako txapelketa izan zen hori, benetan sorpresa eman nuen bertan. Azkenik, nola ez, Ipar Euskal Herriko txapelketa ere, oraintsu irabazi duguna, gogoan daukat, besteak beste. ◀

Flashback **Romo Futbol Taldea, 1946**

UNAI BREA ►

Egia aitortu behar dugu: ez dugu argazki honen inguruko misterioa argitu. Lagun handi batek helarazi zigun kopia bat (orrialde honetara ekarri dugun jatorrizkoa Getxoko Udal Liburutegiak utzi digu), beheko aldean ageri zaizuen izen-zerrendagaz eta goiburuko oharraz: Romo Futbol Taldea, 1946.

Gaur egungo Romo F.C. 1978an sortu zen, Itzurbaltze-tako gazteen artean futbola sustatzeko, eta aspalditik du hitzarmena Arenas historikoagaz. Romoren webgunean 40ko hamarkadako argazki gutxi batzuk egon badauden arren, zoritxarrez bertako inor ez da gai izan aldameneko irudiaren historia argitzeko. Eta zuk, badakizu? ◀

ARGAZKIAN:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Luis del Río, Martín Andrés, Felipe Sopuerta, Jose Grandes, Jose Antonio Gutiérrez, Jose Manuel Ariño.

Behean, ezkerretik eskumara: Enrique Valderrama, Jose Mari Yoldi, Carmelo Bilbao, Juan Grandes, (?) Casado, Paco Barrietabeña.



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora



TESTUA
Iñigo Kortazar Elias

DOINUA
*Mutil koxkor bat
itsuaurreko*

ARGAZKIA
Hodei Torres

Txerri-buruaren moda

*Zubiaurreren koadroan lez
errealitate-itzala:
herri bateko kale bat dugu
luzea bezain zabala.
Eta izkinan txerri-burudun
pertsonek ez da makala!
Bere eskutan patinetea
ondo hartuta daukela;
eta jendea dabil ondotik
normala balitz bezala.*

*Aketza ala urdanga izan,
hortxe dakusagu bapo.
Ortozik dabil lasai antzean
eta egin da plazako.
Baina urduri jarri omen zen
ai sanmartinetarako!
Azkenerako libre izan zen
hartuagatik aintzako,
argalegia omen zelako
bera txarribodarako.*

*Irudiaren fenomenoak
bihurtuko al da moda?
Horrela balitz, gure auzoa
beharko zaigu aztora.
Baina boladak izaten dira:
orain behera, gero gora.
Susmoa daukat hel daitekeela
jendartea edonora:
orain bakarra dago kalean,
laster ikusi beharko da.*

ALBE**Algortako
Bertsolari
Eskola**

Mundukatuak Chilón (Chiapas)

«Naturarekiko harremana oso handia da hemen»



Aida Riaño Barrio

Nongoa
Getxo.


Adina
26 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Ikasketak
Psikologian graduatua eta Osasun Psikologia Orokorreko masterra.

Noiz heldu zinen?
2018ko azaroan.

Noiz arte bertan?
Urtebeterako joan zen, baina ez du argi noiz arte egongo den.



Lurraldea
Mexikoko Estatu Batuak.

Azalera
1.964.375 km².

Hiriburua
Mexiko Hiria.

Biztanleria
126.577.691 (2019).

Hizkuntzak
Gaztelania da *de facto* hizkuntza ofiziala, eta biztanleriaren %98k hitz egiten du. Hala ere, amerindiar asko, biztanleriaren %6,5, beren jatorrizko hizkuntzetan ere mintzatzen dira. 65 mintzaira indigena nazional daude.

Moneta
Peso mexikarra.

IKER RINCON MORENO ▶

Terapeuta humanistarako ikasketak egiten zegoela, Polaritateen teoriak atentzioa eman zion Aida Riañori, Itzurbaltzetarrak dioenez, horiek lantzeko bide indartsua da kulturen kontrastea, eta esperientzia hori bizitzeko grina piztu zitzaion. Handik gutxira, Mexikon unibertsitate-lan bat egiteko eskaintza egin zioten bere bikotekideari, eta berak indigenen kulturak ezagutu gura zituenez, beragaz bertara joatea «aukera aparta» iruditu zitzaion. 2018ko azaroan joan zen Amerikako erdigunera aurrenekoz, urtebeterako gelditzeko asmoz; hala ere, etxera bueltatu bada ere, bertara bueltatuko da laster, «eta ez dut oso argi zenbaterako». Chiapaseko Chilón herria bilakatu du bere bizileku, EZLANK (Nazio Askapenerako Armada Zapatista) piztu zen Lacandona oihanetik gertu. Hasiera batean, boluntario-lanak egiten zituen bertan, komunitateetan bitartekari sozial gisa lan egiten duten emakumeentzako formazio-programa bat diseinatzeko. Gaur egun, ordea, helburu soziala duen enpresa batean dihar-

du, besteak beste genero eta lidergo indigenaren inguruko programa batzuk bultzatzen. Lan horri esker jasotzen duen formakuntza «etengabea» dela dio Riañok; era berean, bere lankideak indigenak direnez gero, haien ohiturak beren-beregi ezagutzeko aukera du. Egunero indabak eta artozko tortillak jaten dituzte bertan; hala ere, azkenaldian aurre-prestatutako janariak «indarrez» sartu direla deitoratu du itzurbaltzetarrak, «kalte handia ekarri dute osasun-kontuetan». Edariari dagokionez, fruta-ura eta kafea oso ohikoak dira bertan; «azken hori txiki-txikitatik edaten dute».

Gaueko giroa arriskutsua den arren, hilabetez hilabete santuraren bati lotutako jaiak egiten dituztela diosku Riañok: «Suziriak egunez eta gauez dabilta!». Hala ere, jai-ereduari dagokionez, bertokoagaz alderatuta «oso ezberdina» dela dio, «biltzeaz, egoteaz eta musikaz gozatzen dute, horrenbesteko dantzarik eta mugimendurik gabe». Bestalde, Chilón herriak turistikoki ezer aipagarririk ez duen arren, komunitateetan lotara gelditzea gomendatu digu, haien bizimodura moldatuz pare bat egunez. «Esperientzia polita da. Haien tradizioak ezagutzeko aukera paregabeak dira». ◀

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:




Engainagarriak

Txatal edo puska hauetatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiagaz. Identifika itzazu.



Itzala

«Ilbeltzeko hotzak leizera daramatza hartzak», dio esaera zaharrak, eta hartz honek ere bide hori bera hartu duela dirudi. Aurki ezazu bere itzal ona, alboko zortzi hauen artean.



Labirintoa

sekuentzia



Lagundu azेरikumeari azeritegira heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuma, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak berben arteko tarteak dira.



Idatzi hemen esaldia



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan
zer ageri den igarriz gero,
beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria Umeentzako liburuak

**Ibaizabal argitaletxeari
esker, 2-3 urtetik gorako
umeentzako hainbat
liburu zozkatuko ditugu.
Sari hori irabazki gura
baduzu, urtarrilaren 31
(barikua) baino lehenago
bidali erantzuna, zure
izen-deiturak eta
harremanetarako bide bat
gure webgunearen bidez:
www.hiruka.eus/zozketak**



Mototsa buruan eta ibili munduan! **Arantzazutik Aizkorrira**


Urteari ekiteko lehenengoa!

TESTUA: **MARIA GOROSTIOLA LASHERAS** ARGAZKIA: **IÑAKI LLM**

Nahiz eta mendiguneko gailurrik altuena ez izan, Aizkorri da tontorrik adierazgarriena. Bertan aurkitzen den ermitari esker irabazi du ospea mendi horrek, besteak beste. Ibilbide ugari daude tontorra konskistatzeko, baina oraingoan Urbiatik igarotzen dena aukeratu dugu orriotara ekartzeko.

Arantzazuko santutegiaren aparkalekuan utziko dugu kotxea eta bideari ekingo diogu eraikin eder hori eskumatara utzita. Porlanezko bidea hartu eta gutxira, bidegurutze batez egingo dugu topo eta egurrezko seinale-tantaiak Urbiarako bidea eskumatara dagoela adieraziko digu (3 min). Las-ter autoa aparkatu daitekeen beste eremu batera ailegatuko gara, baina ez da oso gomendagarria; izan ere, leku-kopurua mugatuta dago, ez daude markatuta, eta hartxingaz beteriko lurrazala da. Posible den heinean, kotxea ibilbidetik hurbilen dagoen herrian aparkatzeko eta bost minutu gehiago ibiltzeko filosofia daukan horietakoa naiz ni!

Baina tira, ez gaitezen galdu eta jarrai dezagun ibilbideagaz; ezkerrean daukagun burdinazko hesia zeharkatu beharko dugu eta hemendik Urbiara bitartean, marra gorri eta zuriek (GR 283) zein horiek (PR-Gi 3006) erakutsiko digute bidea. Bidezidorrari jarraituta, pagadi bat zeharkatzen hasiko gara konturatu orduko, urtaroen arabera izugarri po-



Malda eta distantzia
824 metro eta 17 kilometro.

Altuera
1.523 metro.

Denbora
2 ordu eta 20 minutu inguru.

Zailtasuna
Ertaina.

lita dena (25 min). Ezkerreko aldean, Ama Birjinaren irudia daukan iturria atzean utziko dugu eta Otraitzeko ibarrera abiatuko gara, gutxika, basotik irten eta Enaitz eta Zabalaiz haitzak osatzen duten Elorrola muinora helduko gara (1h 20 min). Behera egiten duen bidetik abiatuta, Urbiako landara iritsiko gara (1h 30 min), Fondatik datorren txorizo-usainak edo norberaren nekeak aitzaki bikaina izango dira ibilbidea amaitutzat eman nahi dutenentzat. Gainontzekoek pistatik jarraitu beharko dute, ipar-ekialdeko norabidean.

Handik eta gutxira, ezkerretik jaisten den bidexka hartu beharko dugu Urbiako ubidera arte, eta horixe bera gurutzu. Mendebaldera bideratuko gara orain, Arberlar kortara, hain zuzen ere; segituan, txabolen artean igarotzen den bidetik jarraitu beharko dugu. Eskumatara doan bide maldatsua hartuko dugu, hemendik aurrera marka horiak baino ez ditugu izango bidelagun; beraz, adi egon! (1h 40 min). Bide harritsutik goazela, haize-orratza ikusiko dugu, helmugatik hurbil gauden seinale (1:55). Aurrez, Aketegi mendia dauka-gu, eta horren ezkerretara Aitzuri. Azkene txanpa hori belar eta haitzen artean egin beharko dugu. Aitzabal inguratzen duen bidetik jarraituta, Aizkorri tontorrera ailegatuko gara (2h 20 min)! Han gurutze bat topatuko dugu, aizkora-forma duen gutunontzia, federazioaren aterpea eta San Kristoko ermita. Ikuspegiez gozatu ondoren eta tripa beteta dugula, aurtora bueltatzeko bideari ekiteko prest egongo gara. ◀

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa

Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko hiru ikuskizunetako batez gozatzeko sarrerak irabaz ditzakezu

Hiru emanaldi hauetako batera joan gura baduzu, bidali erantzuna otsailaren 3a (astelehena) baino lehen. Ez ahaztu zein ikuskizunetarako sarrerak gura dituzun adierazteaz.

• www.hiruka.eus/zozketak
• 944 911 337



Sariak



Mikel Urdangarin

Zornotzako kantariak Sopelako Kurtzio kultur etxean emango du kontzertua, otsailaren 7an. Emanaldirako sarrera bikoitz bi zozkatuko ditugu.



Sarah McQuaid

Producciones Serranori esker, hiru sarrera bikoitz zozkatuko dirugu Sarah McQuaiden kontzerturako. Otsailaren 9an, Bilboko BBK Aretoan.

Zozketa

Baserriko dendaren otzara

Berangoko Baserriko dendak emandako otzara paregabea zozkatuko dugu izena ematen duten HIRUKAlagunen artean. Izenak adierazten duenez, sasoiko produktu freskoak ematen ditu Baserriko, bai Lantzarte auzoko dendan bai etxez etxe. Sano eta goxo, euren leloa.

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 6a (eguna) baino lehenago deitu HIRUKAra, edo gure webgunearen bitartez eman izena:
www.hiruka.eus/zozketak • 944 911 337.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.





gurasolaguna

Gure etxeko hizkuntza ohituretan
geu gara eredu, eman izena:
www.egizu.eus/gurasolaguna

Sustatzaileak



Babesleak